

**BAJAK**

Izorratuta, baina lanera

Medikuaren
gainetik
inspektoreek
dutelako
azken erabakia



- **Kantonamenduetako bozak** Zaharkitutako sisteman, aldaketarako tarte txikia
- **Zubietako erraustegia** Finantzaketaren gakoak
- **1916ko kantu kaiera** Senpereko Hatsa elkarteak berreskuratutako harribitxia
- **Carlos Garaikoetxea:** «Pauso zintzo eta definitiboak ematen ari direla uste dut»
- **Thierry Biscary, musikaria:** «Gu ez gara pop kantariak, euskaldunak gara»



Latxun 152

Datorren asteko **argia** rekin

Brian Currinen gogoetak

Hegoafrika,
Ipar Irlanda eta
Euskal Herriko
bake prozesuetan
ikasitakoak



Argazkia: Lander Arbelaitz

- _ Nola egokitu Euskal Herrira Hegoafrika eta Irlandako esperientziak?
- _ Bake prozesu formalaren aldarrikapena

_ Analisi gehigarriak:

- **Paul Rios:** *Konponbiderako elkarrizketarako baldintzak*
- **Imanol Murua Uria:** *Bakearen ondoren, politika*



Azaleko argazkia:
DANI BLANCO
Azala: GARBINE
UBEDA GOIKOETXEA

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Ixabel Bereziartua. Zuzendaria: Xabier Letona. Zuzendariaren albokoa: Pello Zubiria. Astekariko erredakzio-burua: Estitxu Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asurmendi. Kultura: Gorka Bereziartua. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza. Euskara: Onintza Irureta. Diseinua: Garbine Ubeda Goikoetxea. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaitz. Haria eta blogak: Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produktzioa: ANTZA, S.A.L.

Kudeaketa eta salmenta: Berdaitz Goia. Harpidetzak: Karlos Olasolo. Idazkaritza Teknikoa: Aloña Soraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarde. Harrera: Olatz Korta.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxak: 943 373403 (erredakzioa), 943 361048 (komertziala). Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 476000. Faxe: 559 476001. Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuinta. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@argia.com. Harpidetzak: harpidetza@argia.com. Erredakzioa: kazeta@argia.com. Interneten: www.argia.com. Lege gordailua: NA 80-1963. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 138 euro. Ipar Euskal Herria: 168 euro. Espainia: 138 euro. Beste atzerriak: 173 euro. Airez: 271 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaila Taldeko partaidea da.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua



GIPUZKOA
zurekin, aurrera ➤



**gizarte
kutxa**
zugandik zuguera



• **NON ZER** •

2011ko martxoaren 20a, 2.269. zenbakia

Deabruaren abokatua

- **Saroi Jauregi:** «Oso harreman kartsua dut gaiekin». ARITZ GALARRAGA / 4

Asteko gaia

- Laneko bajen kontrolek itotako langileak. MIKEL GARCIA / 5

Pertsonaia

- **Carlos Garaikoetxea:** «Hau bezalako uneetan, gauza asko ahaztu behar da». SUSTRAI COLINA / 10

Gaiak

- Diktadura garaiko militarrek urduri Hego Amerikan. ALVARO HILARIO PÉREZ DE SAN ROMÁN / 16

Iritziak

- **Ttakun (h)errenka** Saltzen duguna. UXUE APAOLAZA / 18
- **Gora Pro Nobis** ASISKO URMENETA / 19
- Cetaá ez da leloa. IMANOL ALVAREZ / 20
- **Txandan** Zera. IGOR ESTANKONA / 20
- Zu zara etorkizuna! KATTALIN MINER / 21
- **Bertso berriak** Hegaz hasi orduko hegoak moztuta. MIREN AMURIZA / 22

Erdiko kaiera

- **Thierry Biscary:** «Tradizioari traizio egin diot». LANDER MUÑAGORRI / 23
- **Moda.** Naziak eta goi-mailako jostunak uste baino lagunago dira. GORKA BEREZIARTUA / 26
- **Liburuak** SAIOA RUIZ GONZALEZ / 28
- **Diskoak** IKER BARANDIARAN / 29
- **Ezpalak** JON TORNER / 30
- **Abarrak** UNAI BREA / 31
- **Denbora-pasak** ANA ZAMBRANO, KIKE AMONARRIZ / 32
- **Zientzia eta teknologia** JOXERRA AIZPURUA / 34
- **Landareak** JAKOBA ERREKONDO / 35
- **Denboraren makina** NAGORE IRAZUSTABARRENA / 36

Termometroa

- **Kantonamenduetako bozak.** Immobilismoaren aurrean posiblistak nagusi. MIKEL ASURMENDI / 37
- **Hondakinak.** Zer negoziatu dute bankuekin Zubietako erraustegia egiteko? URKO APAOLAZA / 40
- **Arribillagatarren kantu kaiera.** Loti ederra beti kantuz. ITZIAR MADINA / 43
- **Bero-beroan** JUAN MARI ARREGI, ONINTZA IRURETA AZKUNE, XABIER LETONA / 46
- **Net Hurbil** Jacques Poirier eta heparinak: botiken kontrol eza auzitan. PELLO ZUBIRIA / 48

Azkena

- Médart doktorearen bila. GARBINE UBEDA GOIKOETXEA / 50



“Oso harreman kartsua dut gaiekin”

Saroi Jauregi | Jartzailea

Ez dakit zergatik errepikatzen duen dioen guztia.

ARITZ GALARRAGA

Argazkia: Dani Blanco

Zu, Saroi, gai jartzailea zara; nahi duzun doinu eta neurrian erantzun.

Doinuak hitz lauakoa beharko du, eta neurriak, galderaren arabera.

Gaiekin duzun harremana azal ezazu, mese-dez.

Oso harreman kartsua da batzuetan, inspirazioak laguntzen duenean. Lehortea datorrenean, berriz, estutu egiten dira gauzak, eta hartutako konpromisoei ezin zaie huts egin. Horrelakoetan inguruko edozeri heldu behar izaten zaio gaiak sortzeko.

Homofobia arrastorik ez, beraz.

Ez gaiekin, eta ezta gayekin ere.

Denok dugu lagun gay bat, baina ez lagun gai-jartzaile bat!

Nik bietatik dauzkat ba inguruan. Baita gai-jartzaile gayak ere.

G puntuaren kanpaina, onartuko dizut, kilikagarria izan zen oso.

Eta gozamen hutsa! Duela lau urte G puntua aurkitu ezinik geratu zirenek maiatzetik aurrera izango dute berriz aukera.

Baina sexua erabiltzen denean amu gisa...

Ar eta eme guztiak inguratzen dira.

Politika koilarakada bat ere ezin falta bertsoan.

Osagai garrantzitsua da hori nire bizitzaren errezetan.

Gai-jartzaileak ere denak zarete ezker abertzaleko?

Gai-jartzaile izan nahi duen inori ez diogu galdetzen botoa zer alderdiri ematen dion, ezta botorik ematen duen ere.

Kanpotik dirudiena bezainbesteko feeling-a dago bertso munduan?

Lantalde handi bat gara, eta, talde guztietan bezala, iritzi askotako jendea gaude. Batzuekin hurbiltasun gehiago sentitzen duzu, eta beste batzuekin gutxiago. Batzuk lagun minak ditut, eta beste batzuk ezagunak baino ez. Niri lagun asko eman dizkit bertso-munduak.

Bertsozale Elkartea, gainera, mundu guztiak du inbidiatzen!

Dena ez zuen ondo egingo, jakina, baina ibilbide oparoa izan du, eta emaitzak begi bistakoak dira.

Bai, bertso antzerki saioak, bertso estropadak, bertso break blog black soundsystemak...

Eta milaka ume astero bertsolaritza lantzen eskola orduetan. ■

Laneko bajen kontrolek itotako langileak

Dirua aurreztu behar dela-eta, langileei bajak eta altak emateko eskumena bere gain hartu du administrazioak eta kontrol neurriak zorroztu egin ditu. Bajan egotea jasanezin bihurtu da askorentzat, langilea susmagarri baita Gizarte Segurantzarentzat, eta medikuen iritziak maiz ez du gehiegi balio.

MIKEL GARCIA

“GUZTIZ ESTRESATUTA bukatu nuen eta ospitaleko errebisioetara gorputz txarrarekin joaten nintzen, banekielako gaizki begiratuko nindutela, beti galdera berarekin: ‘Oraindik bajan?’”. Alde guztietatik estutu ninduten eta ez dut uste jendeak tratu hori merezi duenik. Ondo iruditzen zait kontrolatzea, denetik dagoelako, baina gaizki zaudela ikusi badute, pertsona gisa tratatu beharko zinduzkete eta sendatzeko behar duzun denbora utzi. Oro har inor ez dago bajan nahi duelako, zeren etxean lanik gabe egotea eroso izan daiteke, bai, baina gaixo ez bazaude, eta soldata guztia kobratuz”. Antonia Luengo da hala mintzo dena, 51 urteko garbitzaile lasartearra. Autobusean zihoala, gidariaren mugimendu bortitz baten ondorioz lurrera erori eta min hartu zuen iaz belaunean, hanka burdin artean harrapatuta. Errotulan fisura zuela eta

Antonia Luengok (irudian) nerbioetatik bukatu zuen belaunean min hartu eta baja eman ziotenean: aseguru pribatuko medikuak, enpresakoak, istripua jazo zen autobus konpainiakoak, Gizarte Segurantzak... beti galdera bera zuten prest: “Oraindik bajan?”.



DANI BLANCO

baja eman zion familia-medikuak. Ez zekien gainera zer zetorkion.

Hanka ez mugitzeko agindu zion medikuak, baina istripua jazo eta hiru egunera, oraindik mina arintzeko lasaigarriak hartzen ari zela, aseguruak —Luengoren mutualitate pribatua, lanetik kanpoko istripua izan baitzen— deitu egin zioten Donostiako Arrasate zentro medikura joan zedin. “Esan nien ezin nintzela mugitu, muletekin nenbilela eta une horretan ez zegoela eraman ahalko ninduen inor, bidaliko niela ospitaleko txostena fax bidez... baina ezetz, eta joaten ez banintzen eskubideak galdu eta baja kendu ahalko zidatela”. Azkenean taxia hartu eta gerturatu egin zen. Iritsi, eseri, eta medikuak galdera: “Noiz erori zara?”, “duela hiru egun”, “zer moduz zaude?”, gaizki zegoela, “ondo da, ba etorri hemendik hiru egunera berriz”. Hor bukatu zen errebisioa. Amorratu egin zen garbitzailea, baina hasi besterik ez zuen egin periploa. Autobus konpainiakoei deitu zioten, beraiek ere istripua izandako bidaiarien kontrola eraman behar dutela eta Donostiako Pilarreko Klinikara joan behar zuela errebisioetara. Berdin enpresakoei, enpresa medikuak ikuskatu behar zuela. Ondorioz, ero moduan ibili zen Antonia Luengo, mugitu behar ez zuenean egun osoa Donostian, alde batetik bestera, autobusean hara eta hona; batzuetan, egun bakarrean zentro berera —mediku ezberdinekin— lau aldiz ere joan behar izaten zuen, ez baitzikioten orduak aldatzen dena jarraian egin ahal izateko. “Ez dakit zertarako agindu zidaten atsedena, horretarako lanera joango nintzen, gutxiago ibiltzen naizelako lanean bajaran baino!”. Eta behin eta berriz, denek galdera bera: “Noiz itzuliko zara lanera?”.

Behin errehabilitazioa hasita, gauzak ez zuen hobera egin, alderantziz. Ohiko errebi-

Azaroan legea aldatu zutenetik, istripu eta gaixotasun arruntetan jada azken erabakia ez da familia-medikuarena, Gizarte Segurantzak zuzenean erabaki ditzake altak

sioez eta errehabilitazioaz gain, Gizarte Segurantzakoei ere deitu zioten, euren ikuskaritza egiteko, eta tratua zakarra izan zen hasieratik. “Honek ezin du horrela jarraitu —adierazi zioten—, arintzen joan beharra dago, hilabete baino gehiago daramazulako eta ezin zaitezke bajaran hainbeste denbora egon...”. “Baina belaunak min ematen dit oraindik eta medikuak berak debekatu egin dit makurtzea eta kokoriko jartzea”, Luengok. “Baina zure lane-rako makurtu egin beharra daukazu, ala?”; “noski, askotan”; “orain garbitzaileek fregona erabiltzen duzue-eta!”. Errespetua eskatu

zion Luengok, fregona erabiltzatik askotan makurtu beharra daukala eta erritmo bizian aritu behar duela erantzunez. Haatik, zirikatzen jarraitu zuen Gizarte Segurantzakoa, ea bajarekin jubilazio aurreratua lortu nahi al zuen. “Nahi bazuen erresonantzia egiteko esan nion nik, baina ez zuten halakorik egin. Umilia-

tuta sentitu naiz; medikuak txostena egin badit esanez gaizki nagoela, zer uste dute, ordaindu egin diodala gezurra esan dezan?”.

Iaztik Gizarte Segurantzak du azken hitza

Bi motatakoak izan daitezke bajak: profesionala (istripu nahiz gaixotasun) eta arrunta, lanetik at jazo (istripu nahiz gaixotasun). Lehen kasuan, Gizarte Segurantzarekin edo Mutua profesionalekin kontratatatu daitezke bajak —%90a baino gehiago mutualitateekin dago kontratatatu— eta beraiek dute prozesu osoaren gaineko boterea, bajak, epeak eta altak zehazteko.

Kontrol eta aldaketa handienak, ordea, gertaera arruntetan eman dira. Halakoak Gizarte Segurantzak eraman ohi ditu gehienetan, baina osasungintza publikoko medikuek artatzen dute langilea. Mediku hori zen orain gutxi arte alta emateaz arduratzen zena, mutualitateek eta Espainiako Gizarte Segurantzak “gomendioak” egin zitzaizkion arren. Teorikoki, desadostasun medikuen aurrean osasungintza publikoak zuen azken erabakia. Bada, legea aldatu zuten joan den azaroan Espainiako Estatuan: batetik, bajaren gehieneko denbora 18 hilabetetik 12ra jaitsi dute; eta bestetik, Gizarte Segurantzako mediku inspektoreei osasungintza publikoaren eskumen berberak eman dizkiete: altak ez ditu zertan familia-medikuak eman, Gizarte Segurantzak zuzenean erabaki ditzake. “Eta legeak dioen arren eskumenak berdindu egin direla, ez dira berdintzen, Gizarte Segurantzak erabakitzen badu langileari alta eman behar zaio-la alta ematen zaizolako”, dio LAB sindikatuko kide Ibon Zubielak. Berdin mutualitateekin:

ogiaren egia
Denda berritu dugu!
Zatoz eta bidaiatu
iraganez okindegi
xarmant batera

Galparsoro
OKINDEGIA

Antzinako ogiaren
kabia bihurtu baitugu
denda zahar berria

Kale Nagusia 6 (Alde Zaharra) - DONOSTIA - Tel.: 943 421 074



INIGO AZKONA

hauek ez dute alta emateko eskumenik, gomendioak bidaltzen dizkiete familia-medikuei, baina orain zeini bidaliko dizkiete gomendio horiek? Zubielak argi du: zuzenean Gizarte Segurantzari, “eta Gizarte Segurantza irizpide ekonomikoek gidatzen dute”.

Mutualitateak eta Gizarte Segurantza eskutik doazela gaineratu du sindikalistak, eta praktikan, gaur egun baij dagozkien arlo denetan Gizarte Segurantzak du botere guztia. Are gehiago, alta eman osteko hurrengo sei hilabeteetan ere, patologia berarengatik edo antzekoagatik baja emateko ahalmena duen bakararra Gizarte Segu-

“Guk ez ditugu behar adina babes eta baliabide mutualitateei aurre egiteko. Azkenean, medikuoi balioa kentzen digute eta gaixoari alta ematen zaio”

GONZALO GOMEZ ITURRIAGA, MEDIKUA

rantza da. Hego Euskal Herrian beraz, Espainiako administrazioak du aginte osoa, eta Ipar Euskal Herrian ere, Europan oro har gertatzen ari den lez, langileen kontrola areagotzea eta osasungintza publikora bideratutako inbertsioak murriztea dira joera nagusiak.

“Geroz eta zorrotzagoa da kontrola —azpimarratu du Zubielak—, gezur bat asko errepikatzearen estrategia kapitalista erabiliz, egia bihurtu arte: langilearen iruzurtzat saldu dituzte bajak, baina delako iruzur hori ez da inongo ikerketarekin frogatu. Kostak aurreztu behar direnez halakoak asmatzen dituzte. Kontrakoa geratzen da-eta! Kri-

**ZIENTZIA
IRAKURLE
ORORENTZAT**

Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara Zerbitzuak 2003an abiarazitako ekimena da ZIO (Zientzia Irakurle Orentzat). Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzari esker urterik urte osatuz doa ZIO bilduma.

Zientziara hurbiltzeko liburu erakargarri eta erabilgarriak eskainiz, euskara eta jakintza uztarturik jartzen dira edonoren esku.

BIZKAIA



“Orain garbitzaileek fregona erabiltzen duzue-eta!”. Horra Gizarte Segurantzako inspektorearen erantzuna, Luengok azaldu zionean medikuak agindu ziola ez makurtzeko.

siarekin eta egungo egoerarekin jendeak beldurra du baja hartzeko, presioa handia da enpresetan, eta prekarietate egoerarekin geroz eta eskubide eta aukera gutxiago ditu langileak baja hartu ahal izateko”. Mutua ugari detektibeak kontratatzen dituztela salatu du LABeko kideak, inongo lege-oinarririk gabe gaixoa kontrolatzeko. Argazkiak ateratzen dizkiete, edo bideokamerarekin grabatu, kargaren bat jasotzen, adibidez. Azaldu digunez, zakar poltsa ateratzeagatik alta ematera behartu zuten langile bat, “baina ez da gauza bera zakar poltsa bat altxatzea edo lanean etengabe kargak jasotzen egotea”. Mutualitateek pozik eduki nahi omen dute bezeroa, enpresa alegia, eta horretarako lehenbailehen produzitzen jarri nahi dute langilea.

Hori bakarrik ez, Antonia Luengoren esperientziak agerian utzi duenez, handia da kontrolaren burokrazia: mediku pila bat bisitatu behar ditu gaixoak eta horrek sendagile askoren beharra eta lan administratibo handia eragiten du. Diru hori guztia osasun sistema publikoan inbertitutako balitz, itxaron zerrendak gutxitu eta zerbitzu hobe eskaini ahalko litzatekeela kritikatu du Zubielak.

Presio horren ondorioz etortzen dira gero eta aurreratuak. Batzuetan, ezinaren ezinez: “Hiru hilabeterako baja gomendatu zidan

“Ez dira benetako errebisioak, kontrolatuta izateko modua baizik. Kriminala ematen nuen, leku guztietara jarraitzen ninduten”

ANTONIA LUENGO, GARBITZAILEA

medikuak —dio Luengok—, baina bi hilabete eta erdira alta hartu nuen, ezin nuelako gehiago jasan, nerbioetatik nengoen eta ezin nuen egunero denekin haserre eta liskarrean jarraitu”. Bestetan, behartuta: “Mutualitateko medikuak erresonantzia egin eta esan zidan haustura nuela sorbaldan, ebakuntza beste erremediorik ez zegoela —Arrigorriagako Edu Lorcak—. Astebetera, mediku berak alta eman zidan, esanez ez zela erabaki medikua, Mutuaren zuzendaritzak hartutako erabakia baizik. Eta gainera altaren arrazoia zera dio: ‘Sendatu da!’”.

Medikua zertarako?

Bajen eta alten erabakiak osasungintza publiko medikuen esku egon beharko liratekeela uste du Gonzalo Gomez Iturriagak, lehen mailako arreta medikuak, eta babes gehiago izan beharko luketela, kolaborazio handiagoa, espezialisten aldetik adibidez. Aldiz, mutualitateko eta Gizarte Segurantzako medikuekin inongo harremanik ez dutela dio, haiek ez dutela sistema publikoko medikuen iritzia kontuan hartzen, eta alta ematen dietela arreta medikuek bajaran dituzten pazienteei. “Altak emateko proposamenak ere iristen zaizkigu Mutuetatik, pertsona hori lanean hasteko prest dagoela esanez, presio mota bat dira, eta guk ez ditugu behar adina babes eta baliabide mutualitateei aurre egiteko, ez zaigu interesatzen epaiketetan sartzea. Azkenean, medikuoi balioa kentzen digute eta gaixoari alta ematen zaio”. Gomezen hitzetan, mutur batetik bestera igaro gara: 1980ko hamarkadan ezintasunak erraz ematen omen zituzten, eta orain ia ezinezkoa da ezintasunagatik baja hartzea.

Gaixotasun eta istripu arruntak artatzen ditu Gomez Iturriagak —horien artean, geroz eta gehiago antsietatea bezalako gaitz psikologikoak, testuinguru sozialak eraginda—, baina gaixotasun profesionalen bajak ematen bukatzen du maiz, mutualitateek sarri ez dituztelako onartzen jatorri profesionala duten gaixotasunak: “Agerikoa da langileak daraman jardun profesionalak eragindako bajak direla. Nik epikondilitis bat, tunelkarpiano bat... antzematen badut laneko mugimendu errepikakorrek sortua, Mutuara

Bajan baldin banago...

Zenbat kobratuko dut soldatetik?

Legeak zehazten duen gutxienekoaren arabera, gaixotasun edo istripu profesionalean, oinarritzko soldataren %75 kobratzen da, eta arruntean, %60 lehenengo hogeit egunetan eta %70 ondoren. Hala ere, enpresako edo sektoreko hitzarmenek hobetu ditzakete baldintza horiek eta hortik aurrerakoa enpresak ordainduko luke.

Kaleratu nazakete?

Kaleratzea librea da eta, LAB sindikatutik adierazitakoaren arabera, geroz eta langile gehiago kaleratzen dituzte bajan daudela. Obra-kontratuekin esaterako, obra amaitu dela arrazoituta eraikuntza munduko langile ugari kaleratzen ari omen dira baja egoeran. Gehienez, bidegabeko kaleratzea argudiatu dezake langileak, eta gutxiago edo gehiago ordainduko

diote, baina merkatu egin da kaleratzea. "Eta gainera, behin kaleratuta daudela jakinda, gaixoa ahalik eta azkarren kentzen dute gainetik mutualitateek", diote LABetik.

Desplazatu naiteke?

Gaueko 10etarako etxean egon behar dela dioen uste hori inon ez dagoela idatzia baieztatu digu Ibon Zubielu LABeko kideak: "Medikuak esan dizuna ezin duzula egin, hori da ezin dezakezuna egin, ez gehiago, ez gutxiago. Baina gaueko 10:30ean zinemara joan zaitezke, nahi izanez gero". Hori bai, probintziatik ateratzeko, baimena eskatu behar zaio medikuari.

Oporrak bajan egokitu bazaizkit, gero hartzeko eskubidea dut?

Bajan egonda opor garaia iristen bazaio langileari, aurrerago hartze-

ko eskubidea dauka, legeak aintzat hartzen duelako oporrez gozatzeko moduko egoeran egon behar dela. Baina oporretan zaudela baja ematen badizute, ezberdina da: hutsune legala dago atal horretan, eta ez dago batere argi langileak zein eskubide dituen.

Eta autonomoa banaiz?

Autonomoak mutualitatearekin kontratatu ditzake gaixotasun eta istripu profesionalak, baina ez da derrigorrezkoa eta gehiengoak autonomoen gutxieneko baldintzak ordaintzen dituenez, ez dizkiete baja profesionalak kubritzen. Baja hasi eta hamabost egunera bai, Gizarte Segurantzaren egiten da arduradun, kotizatutakoaren arabera, baina egun gutxiagoko baja izanez gero (eta aseguratik ez badauka), autonomoak berak ordaindu beharko luke.

bidaltzen dut pazientea eta hark dio ezetz, hori dela langileak tenisean jokatzen duelako. Azkenean ez zaigu besterik geratzen, erabakia eta boterea Mutuena da".

Bajek iraun beharreko epeen taulak errespetatzen al dituzten galdetu diot Gomez Iturriagari.

Mutuak eta Gizarte Segurantzako mediku inspektoreek zurrin erabiltzen omen dituzte taulak, beraiek ez hainbeste, gaixotasunaren bilakaeraren arabera jokatzen baitute. Baina zer gertatzen da? Mutualitateak gaitz profesionaltzat hartu ez duen epikondilitisak tratamendu luzea duela sistema publikoko itxaron zerrendetan eta taulako epeak gainditzen dituenez, azkenean Mutuak alta emateko eskatzen die. "Autoritatea kentzen digute eta borroka etengabea gaude".

Sari ekonomikoak baja gutxien ematen dituen medikuari

Harrigarria badirudi ere, Espainiako Estatuko hainbat lurraldetan (Madril, Murtzia eta Katalunia) sari ekonomikoak ematea onartu dute baja gutxien sinatzen dituzten mediku publikoek. Halakorik gerta al liteke gurean? Gomez Iturriagari beldurgarria iruditzen zaio: "Nik ez dut nahi inongo hobaririk, ezerengatik, ukatu egingo nituzke. Norberaren irizpideen

Handia da kontrolaren burokrazia: sendagile asko behar da eta lan administratibo handia eragiten du, dirua osasun sistema publikoan inbertitu beharrean

kontra txanpon batzuenatik saltzea ikaragarria da eta nire etika profesionalaren aurka doa". Ordea, bajak jaitsi egin dira aipatu hiru lurraldeetan. LABeko kidearen esanetan, "ez ote da izango hainbat kolektibok beren burua kapitalari saldu diotela? Osasuna merkantilizatzen ari dira, diru hori osasungintza publikoa hobetzeko erabili beharrean".

Gaixo dauden edo istripua izan duten langile andanak pairatzen dituzte administrazioak ezarritako presio neurrien ondorioak. Zertarako hainbeste errebisio, azterketa medikuak egin beharrean galdera pare batekin etxera bidaltzen bazaituzte berriz? Gizarte Segurantzakoek erantzutea ez dugu lortu; garbitzaile lasartearrak aski garbi dauka: "Ez dira benetako errebisioak, kontrolatuta izateko modua baizik. Goizeko 8etan eta gaueko 9etan deitu izan didate. Behin alabak hartu zuen telefonoa eta anbulatorioan nintzela argitu zien, mandatua hartuko zuela, baina ezetz, ordu erdira deituko zutela, eta ordu erdira deika nituen. Kriminala ematen nuen, leku guztietara jarraitzen ninduten. Eskuburdinak jarri eta komunera noiz nindoan kontrolatzea baino ez zitzaien falta!". Iruzurtien aitzakian, hainbat esparrutatik zabalduko irudiak horixe bihurtu du langilea: gaizkile. ■

Carlos Garaikoetxea

«Hau bezalako uneetan, gauza asko ahaztu behar da»

Akordua da ahanzturaren itxarongela.

SUSTRAI COLINA

Argazkiak: Josu Santesteban

Amak eta amonak txikitan kantatzen zizkizuten Iparragirreraren abestiek oihartzun egiten omen dizute oraindik.

Ama, euskara aspaldi galdu zuen Soraurenekoa zen, eta amona Lizasokoa. Beti kitzikatu nau Lizasora Iparragirreraren abestiak nola heldu ziren pentsatzeak. “*Gazte-gaztetatikan...*”, “*Agur nire bibotzeko amatxo maitea...*”, izugarri gustatzen zitzaizkion gure amari, eta horri esker, ideologia jakin bat transmititu ez arren, herri sentimendu baten brasek berotzen gintuzten uneoro. Alabaina, gure aita Larraungoa zen, euskaldun garbia, baina lan kontuak zirela-eta beti zegoen kanpoan, eta senideok gerora euskaldundu behar izan genuen. Oso aro iluna zen gerra ostekoa, are ilunagoa moral eta usadiozko gaietan. Politikoki, kezkaz eta ikaraz ehundutako gortina hedatu zen, han eta hemen entzuten zirenek izua iltzatzen zizuten. Gogoan dut gure aitak beti kontatzen zuela nola akabatu zuten, errepublikarra izateagatik, jotak kantatzen zituen gizon bat. Ez zait sekula ahaztuko kolegioetako doktrinamendu politikoa. Pentsa, 8 urterekin testualki esaten ziguten maristetan: “*Franco se puso en oración y el espíritu santo le inspiró cuando fue a estar con Hitler para entrar en la guerra mundial*”. Nahiko esanguratsua da, ezta?

Horrek piztu zizun politikaren sukarra?

11 urterekin hasi nintzen Arturo Campion-en liburuak irakurtzen, eta ustekabeen, sekulako barne-iraultza eragin zidaten. Anaia zaharrena euskarazko gramatika liburu bat zeukan etxean, eta sintonia oneko kolegioko apez bati esker liburu gehiago eskuratzeko modua izan nuen. Pentsa, nire bizitzan jasotako lehen zaplaztekoa latineko klasean aita Zavalaren liburuarekin harrapatu nindutelako

eman zidaten. Hortik landa, oso sakon sentitu izan dut euskal kausa. Esaterako, unibertsitategaraian EAJren lehen disidentzia eta ETAren sorrerarekin konektatzen zuen zelula abertzale bat antolatu genuen. Kide bat atxilotu eta txikitu zuten ordea, eta hortxe bukatu zen gure zelula. 1970eko hamarkada hasiera arte ez dut kargu organikorik izan inolako alderdietan, bizitza profesional oso dentso eta korapilatua baineukan, baina eza gutzen nindutenek ederki zekiten nire tesiak zein ziren. Hori hala, ikastolen sorreran, Nafarroa osoa komentuz komentu pasa nuen ikasgelaren bat lortzeko esperantzan. Ikastolak lehia politiko ororen gainetik mantendu behar zirela iruditzen zitzaidan, eta gainera, aktibitate horrek erruz asetzen zuen nire militantziarako grina. Urte batzuk berantago, nire bokazioari bidea emanez abokatu bufetea zabaltzera nindoanean, EAJn sartzeko konbentzitu ninduten, eta hortxe pasa nintzen almazenetik erakusleihora.

Eta urte gutxira Euskal Autonomia Erkidegoko lehenbiziko lehendakaria hautatu zintuzten.

Hori baino lehen, euskal kontseilu orokorra zeritzon organo preautonomikoaren lehendakari izan nintzen. Gerora gaizki kontatu den une historikoa izan zen hura. 1977an antolatuko ziren lehen hauteskunde “libreetan”, Hegoaldeko lau probintziek proiektu autonomiko komun batean parte hartuko zuten ala ez erabakiko zutela aurreikusita zegoen. Orduko PSOEk estatutu bateratu bat babesten zuen, eta aukera itzela zen espainolen aurrean gure lurraldea zedarritzen hasteko. Bozka gehiago atera genituen, baina indar fragmentatuak izaki, diputatu batengatik eskuinak irabazi zuen d’Hont legeari



Nortasun agiria

1938ko ekainaren 2an sortu zen Iruñean. Zuzenbide eta ekonomian Deustuko unibertsitatean lizentziatua, EAEko lehen lehendakaria izan zen 1985era arte. 1986an, Eako sortzaile eta bertako lehendakari izan zen 1999an politikako kargu organikoetatik erretiratu zen arte.

esker. Afera zein den? Hauteskunde haietara ezker abertzalea aurkeztu izan balitz estatutu bateratu bat lortuko genuela, eta gerora txotxolokeria anitz idatzi badira ere, ez zela inposatutako ezer izan, geuk galdutako aukera historikoa baizik.

Ados, ez zen denok nahi genuen estatutua, hauteskundeetan ez parte hartzea ikuspegi horretatik arrazoitu zitekeen, baina orduan sartu ziguten gola berdindu ezinik gabiltza oraindik.

Estatutuaren zer ikuspegi zenuen orduan? Zelan ikusten duzu orain?

Mugatua izan arren, une hartan errefusatu ezin zen erreminta zen. Ekonomikoki herria hondoa jota zegoen, zonalde batzuetan langabezia tasa %30 baino goragotik zebilen, euskarak trantze agonikoa bizi zuen... Hankaz gora zegoen herria, zisko eginda. Hori aski ez eta espoliazio fiskalak sekulako defizita sortzen zigun azpiegiturak garatu eta etorkizuneko bideei aurre egiteko tenorean. Nola edo hala, urgentziazko neurriak hartu beharra zegoen, eta zentzu horretan, estatutua erabakigarria izan zen. Zer egin behar genuen gutxieneko erreminta hori gabe? Are gehiago, zergatik uste duzu burutu zutela otsailaren 23ko estatu kolpe saiakera? Ez zutelako halakorik onartzen! Ordutik 30 urte pasa dira ordea, Estatuak komenientziazko interpretazioak egitearen poderioz erremintaren potentzialtasuna ahuldu du, eta zorionez edo zoritxarrez, beste etapa batean gaude. Bukatu dira orduko larritasunak, ezin liteke jada pragmatismoa diktadurara itzultzeko beldurrarekin arrazoitu, Europa bezalako eremu ireki batean gaude, eta garaia da zentzurik gabe eta motz geratu dena gainditzeko. Ezin dugu denbora txikikerietan galdu. Zergatik interesatzen zaigu kartzelako maisuen kudeaketa ematen digun transferentzia kartzelen kontrola Estatuaren esku egongo bada beti? Borrokatzekotan, gizarte segurantzaren propioa lortzeko borrokatu behar da. Izan ere, botere politikorik gabe herri batek ez du bizirauten, eta edozein abertzalerentzat botere politikoa independentzian datza. Une bakoitzak bere afana du, eta txikiaren indarra malezia izanik, bizirautea bizitzera pasatzeko, hurrengo pausoa emateko garaia da.

Pragmatismoak printzipio ideologikoak jatera eraman dezake?

Desbideratuz gero, “-ismo” guztiek desitxuratu ditzakete hastapeneko printzipio nobleak.

Zentzu horretan, pragmatismoa, “instituzionalitisa” deitzen diodan instituzionalismoa bezala, arriskutsua izan daiteke. Zein da helburua, edozein preziotan erakundeetan egon eta poltronak okupatzea? Bitartekoak helburu bihurtzen dituzun unetik galduta zaude. Horrek bihurtu nau heterodoxo eta disidente egon naizen alderdi zenbaitetan. Estatutua onartzean, esaterako, zein da xedea, soberaniaren bidean urratsak emateko tresna eskuratzeko ala instituzioetan egotea? Nik hori beti ukan dut garbi, ez dut sekula ezkutatu autodeterminazioaren aldeko nire jarrera. Madril ustez, beti izan naiz “erresistentzialista”, transbertsalitatea, ezberdinen arteko akordioa eta pragmatismoa bezalako kontzeptuen

“Beti hitz egin dut errespetu handiz EAJri buruz, baina zin dagizut batzuei telefonoak pintxatzea baino askoz gauza zatarragoak bururatzen zitzaizkiela”

aurrean. Baina zer da transbertsalitatea? Espainia osoan txakurra eta katua bezala dabiltzan gure lurraldeetan gobernu paktuak egitea abertzaletasunari ateak ixteko? Abertzaleen artean ere txotxolo asko dabil transbertsalak direla esanez, amua irentsi dutela ohartu gabe. Politikan logikoa, denak elkar errespetatzea da, arma demo-

kratikoekin jokatzeko, baina akordioak zure antzeko sentiberatasuna dutenekin egin behar dituzu.

EAJren eszisia eta EAren sorrera zergatik eman zen, arrazoi ideologikoengatik ala motibo pertsonalengatik?

EAJ gehiago zen mugimendu bat alderdi bat baino. Diktadura batean ez daukazu gobernu ardurarik, eta gobernu ardurarik gabe nekez erantzungo diezu gizartearen arazoei. Hori hala, mugimendu berean tendentzia ezberdineko jendea pilatu daiteke: kontserbadoreak, sozialdemokratak, soberanistak, autonomiarekin amets egiten dutenak... Baina gobernatzen hastean, gizartearen arazoen irtenbide bila abiatzean, berehala sortu ziren lehenengo krika-karak. Esaterako, Lemoizko zentralaren aferan nik erreferenduma eskatzen nuen baina nire alderdiak ez ninduen babesten, nik txintik jakin gabe Iberduerorekin akordioak zituelako. NATO-ren auzian, Espainiako Estatuak euskaldunoi zer integritate bermatzen zigun galdetzen nuen nik, baina... Arazoaren muinean, herri ikuskera bat zegoen. Beti esan dut gure herriaren arazo nagusia zatiketa zela, eta zatiketaren barnean, lurraldetasuna eta probintzianismoa. Nik horrekin bukatzeko garaia zela aldarrikatu nuen, nazio gobernuaz gehiago hitz egin behar genuela eta aldundiez gutxiago. Beti proposatu dut Iruñea hiriburutzat, eta estatutuak halakorik ez bazioen ere, Ipa-

rraldeko eta Nafarroako herritarrei funtzio publikoan sartzeko atea ireki nien. Ordurako, txokeak aurrez aurrekoak ziren, eta bigarren legeintzaldirako zepoa jarri zidaten. Nik ez nuen segi nahi, oso minduta bainengoen Arzalluz eta konpainiak, nafarrei bizkar emanez, Del Burgoren eskuinarekin paktatu zutelako. Nik nafarren aldeko kanpaina egin nuen, eta egiari zor, gure arteko begiradek txinpartak pizten zituzten jada. Horri gehitzen badizkiozu Arzalluzen haizearen araberrako sigi-sagak... Zer egin behar nuen nik egun batean autodeterminazioa sorginkeria marxista zela esan eta hurrengoan inor baino abertzaleago agertzen zen batekin? Hala ere, argiki diotsut ezberdintasunak ideologikoak zirela, eta gure lekuan beste bi egon balira, zori bera ezagutuko genukeela.

Ondoren, zornetzen segitu zuen zauriak. Entzuketak ilegalak egin zizkizuten...

Hori da politikaren beste degenerazio bat. Jende batek uste du “kausaren” izenean edo zer egin dezakeela, dena dela zilegi. Hala ere, pintxatuta neukan lehen telefonoa Zarauzkoa izan balitz, gaitz erdi! Ziur nago, Ajuria Enekoa hura bezain pintxatuta zegoela, baina Zarauzkoa harrapatu egin genien, eta hori izango da jendea izen-abizenekin zigortu den kasu bakarrenetakoa. Tira, hor ere X-jauna libratu zen, agintari gorenak beti irteten baitira eskuak garbi halakoetatik, baina aspalditik zetorren “kausaren alde denak balio du” joera horrek ere izan zuen zerikusia hausturan. Beti hitz egin dut errespetu handiz EAJri buruz, baina zin dagizut batzuei telefonoak pintxatzea baino askoz gauza zatarragoak bururatzen zitzaizkiela.

Euskaldunak kondenatuta gaude eszizioetara?

Gurea bezalako egoera bizi duten herrialdeetan oso ohikoa da hori. Edozein aldarrikapen nazionaletan, pragmatismoaren langa kokatzean datza eztabaidarik handiena, eta hortik



dator desadostasun oro. Osotasunaren bila kolpetik joan ala urratsez urrats aritu, erresistentzia armatura jo edo malezia politikoa erabili... Zer gertatu zaie kosovarrei, palestinarrei, kurduei...? Dena ordenan eta lortuta dagoen herrietan nekez izango da halako eztabaidarik. Guk, ordea, mundu guztiak dauzkan arazoak ber bi daukagu. Zergatik? Denek dauzkaten eguneroko arazo sozio-ekonomikoez gain, gatazka nazionalaren arazoa daukagulako, eta horrek dena biderkatzen duelako.

FINALAURREKOAK
Martxoak 19 / Leitza
 17,30 - Zinema zaharra

**NAFARROAKO
BERTSOLARI
TXAPELKETA**

11

www.nafarroakotxapelketa.com

Antolatzailea:



Laguntzailea:



Estitxu Arozena
 Xabier Terreros
 Iñigo Olaetxea
 Ander Fuentes "Itturi"
 Josu Sanjurjo
 Miel Mari Elozegi "Luze"



www.bertsosarrerak.eu

GALDE SHORTA

Otegi. Prozesu honetan ezinbestekoa den eta modu ulertezinean espetxeratu zutena.

Arzalluz. Pena bat. Dohain itzelak izan arren, senetik irtetea politikari batek izan ditzakeen okerrenak dauzka; desoreka kontraesankorrak eta kontraesan desorekatuak.

Zapatero. Ezezkorik ematen ez dakiela dirudi, baina beti egiten du berea; gaur bat eta bihar kontrakoa.

Rajoy. Oso galegoa. Askotan berak bakarrik ulertzen dituen gauzak esaten ditu, baina badaki nora doan.


López. Ea lehendakari izaten hasten den.

Basagoiti. Politikari batzuek titularrak baizik ez dituzte bilatzen.

Sanz. Bere ondorengoak onduko du.

Patxi Zabaleta. Noraezean nauka. Une historiko honetan, nola izan daiteke aita santua baino papistagoa?

Urkullu. Bizkaiko peneuvismoaren prototipoa.



Gatazka nazionalaren auzian une historikoa bizi dugula dirudi.

Hau bezalako uneetan, gauza asko ahaztu behar dira, perspektiba historikotik pentsatu, eta iraganean sartu dizkizuten labankaden gainetik egon behar duzu, indarrak batu eta erronka berriei aurre egiteko. Hor kokatzen dut EAk ezker abertzalearekin paktatuz, munduari estatuek zapaltzen duten masa independentista bat dagoela erakusteko egin duen ahalegina. Hori ozen esatea borroka armatuarekin jarraitzea baino eraginkorragoa da. Hori da bidea, eta hori da NaBaikoek ulertzen ez dutena. Nola liteke, Nafarroan, metaketa horrek premia gehien duen lurraldean, ezker abertzalearekin indarrak batzeko hitz egin behar dela esan, eta Aralarrekoek ezetz esatea? Ulertezina da. Zer dute, EAEn ENAMen lidergoa galtzeko beldurra, ala? Afera ez baita bakarrik ez dutela hitz egin nahi, haiekiko leialtasunez ezker abertzalearekin ditugun akordioak hausteko eskatzen digutela baizik. Hori hala, alde guztietatik egurtu gaituzte, baina gu gurera goaz, politikan ere gauza guztien gainetik duintasuna mantentzen jakin behar baita.

Alderdikeriez harago, nola ikusten duzu abiatu berri den prozesu hau?

Geroz eta esperantza gehiagorekin. Badakitz 50 urteko historia ez dela goizetik gauera aldatzen, baina pauso zintzo eta definitiboak

ematen ari direla uste dut. 800 preso daude, desarme prozesu bat diseinatzea lan nekeza da, eta horregatik bakarrik normala iruditzen zait su-eten honek oraindik definitiboaren izenondorik ez izatea. Hortik landa, nazioarteko egiaztatzea baldin badago, frantses eta espainiar gobernuak busti beharko dute, eta prozesuaren ondorioak asumitu. Hori hala, ez dut ulertzen zertan dabilzan Aralarrekoak su-etena aldebakarrekoa ez delako kexan. Polizia jendea atxilotu eta atxilotu ari da, komisariatetik tortura salaketak datoz, eta ez dela su-eten aldebakarrekoa? Noiz arraio ulertuko dugu 50 urteko etapa ixterakoan eztabaidak izatea munduko gauzarik normalena dela? Detaile teknikoetan soilik denbora asko joango da, eta urrats politikoei dagokienez, ezinbestekoa izango da Madrilan espektatiben mailan eta zezenari adarretatik heltzeko prest dagoen estatu gizon batekin topo egitea. Ez naiz alfonbra gorria jarri behar digutela esaten ari, baina oztoporik ez jartzea bera pauso bat litzateke.

Izan ere, horrelako auzietan, sinetsi ala ez, oinarri bat dagoela ikusten duzun unetik ekitea dagokizu, gurdia tiratzea, bustitzea. Horretarako sartzen zara politikan, ez ondo bizitzeko. Ni hemen nago, jubilatuta, amuarrairak arrantzatzeraz joateko adinean, baina inoiz baino gehiago sufritzen. Noiz arte egongo da politikan instituzionalitisa jota dagoen idealik gabeko jendea? ■

maite ditugu
igandeak

eta hemendik aurrera

are gehiago

7K

Euskal Herriko igandekariaren

aro berria

igandeetan **GARA** -rekin

Diktadura garaiko militarrek urduri Hego Amerikan

Ez dira garai onak behin Hego Amerika luzaro odoleztatu zuten militarrentzat. Barkamen legeek geldiarazitako auziak berrabiaraztea lortu dute gobernu aurrerakoiek. Baina hainbat taldetan elkartuta, gizateriaren kontrako krimenekin zerikusia duten militarrek mugitzen hasiak dira, eta lekukoen edota kazetarien aurkako mehatxuak azaleratu dira.

ÁLVARO HILARIO PÉREZ DE SAN ROMÁN

ROGER RODRÍGUEZ kazetari uruguaiarra aski ezaguna da herrialde hartako azken diktadurako (1973-1985) giza eskubideen bortxaketak argitzeko egin dituen ikerketa lanei esker. Otsailean, *Caras y Caretas* aldizkarian agertutako bere artikulu bat istilutsua izan da oso eta bere kontrako mehatxuak eragin ditu. Artikuluan, diktadurako krimenei lotuta dauden militar erretiratuek sortutako taldearen berri ematen zuen Rodríguez: 1971-1974 tar- teko promozioetakoak dira, erre- presioan parte-hartze zuzena izan zutenak, eta auziperatuak izan dai- tezke. Komando koordinatzaile batek gidaturiko konfederazioa eratu dute: Libertad y Concordia Foroa. Hego Amerikako eskumako alderdiak batzen dituen UnoAméri- ca elkarte venezuelarrak eta Argentinako errepresore ohiek babesten dituzte. Hain zuzen, UnoAméricak Montevideon antolatu- tako bilera batean ezagutu zuten elkar Argen- tinako Militarren Defentsarako Promozioen Elkarteko (AMDPE) presidente Horacio Guglielmonek eta Foroaren bozeramaile Juan Carlos Araujok. 2010eko abenduan sortu zuten Foroa, oraindik ere jardunean dagoen Miguel Dalmao jenerala –Nibia Sabalsagaray militante komunista hiltzea leporatuta– auzi- peratua eta espetxeratua izan eta gero. Inter- neteko beren Facebook profilean lagun dituzte Amerikako eta Italiako hainbat alder- di eta talde faxista, baita Uruguaiako alderdi Gorriko zein Zuriko zenbait diputatu. Gobernuaren eta justiziaren kontrako “guda psikopolitikoari” eman diote hasiera.



Militar ohien Libertad y Concordia Foroa Facebooken duen profilean ikus daiteke goiko argazkia. Berau erabili zuen Roger Rodríguez kazetariak, erakundeak ultraeskumarekin duen harremana salatzeko.

Arestian aipatutako Rodríguezen artikulua ez zuten gogoko izan eta, egun gutxira, Héctor Varela militarrek Facebooken argitaratu zituen kazetariaren helbidea eta telefonoa. Auziperatuta dauden militarrek defendatzea eta jardunean dauden militar gazteak, beraie- kin bat egiten ez dutenak, erakartzea dira beren helburu nagusiak, antza. Hala ere, ez du ematen matxinatzeko arriskurik dagoenik.

Roger Rodrígueznek argitu duenez, “gaur egun, militar erretiratu horiek nazioarteko muturreko eskumaren ordezkariak dira; Ameriketako Sao Pauloko Foroa eta Europan aurrerakoia den edozein alderdi etsai dituen muturreko eskuma da. Latinoamerikan zigor- gabetasunaren kulturak bizirik dirau, Guanta- namon, Iraken edo Afganistanen gertatuta- koen sostengu. Eta egia aurkitu nahi

dugunok, giza eskubideak defendatzen ditugunok, beraientzat arriskutsuak izan gaitezke. Ez da, beraz, Uruguairi edota Hegoaldeko Konoko diktadurei dagokien gaia soilik. Giza eskubideen gaia da”. Kazetariak gaineratu digunez, “botere ekonomikoa dela-eta, arriskutsuena dira Forokoek nazioartean dituzten harremanak, adibidez Alejandro Peña Esclusak (egun Venezuelan preso, eraso terroristak prestatzea leporatuta) zuzendutako Uno-Américarekin”.

Prestigio gutxiko ‘milikoak’

Raúl Zibechi kazetariak ere balizko epaiketekin lotura duten militarrengana mugatzen du gatazka: “Uruguairi *milikoak* ez dira Europa-koak edota Brasilgoak bezala. Prestigio gutxi-koak dira eta oso soldata baxuak dituzte. Horrexegatik joaten dira Haitira, ea zerbait ateratzen duten, hemen etorkizunik ez baitute. Ezin dugu ahaztu diktaduraren garaietan lapurtu egiten zutela eta orain ezin dituztela egin lehen egiten zituzten negozioak”. Dena dela, ustelkeria, oraindik ere, nahiko hedatuta dago militarren artean; azken hilabeteotan agerian geratu denez, Itsas armadan batez ere.

Gatazkaren gakoa giza eskubideen arloan kokatzen duen bakarra ez da Roger Rodríguez. Veronika Engler idazleak gertutik eza-gutu zituen militarren joera bortitzak: aita, Henry Engler, Nazio Askapenerako Mugimendua-Tupamaros taldearen buruzagietako bat izan zen. Hamabi urtez egon zen preso. “Gure herriko justiziak akusatuen eskubideak bermatzen ditu; hiritar oro errugabea da kontrakoa frogatu arte, esaten dute militarrek, baina diktaduran, estatu terrorismoaren garaietan, oinarri horri muzin egin ziotela ahaztu dute”, esaten du Veronikak Libertad y Concordia Foroko taldekideen kexei errepa-

“Hiritar oro errugabea da kontrakoa frogatu arte, diote militarrek, baina diktaduran, estatu terrorismoaren garaietan, oinarri horri muzin egin zioten”

VERONIKA ENGLER, IDAZLEA

ratuz. “Ez dakit, esaterako, Interneten esaten duten guztia egiteko gai diren, baina inguruetara begiratuz bertan behera laga ez duten Iraungitze Legea [Barkamen legea] eta argitu ez diren hainbat eta hainbat gizateriaren kontrako krimen ikusten ditugu; gure herrian zerbait ondo ez dabilela (justizia, hain zuzen ere) argi dago. Irainak agoantatzen ditugu, agoantatzen dugu presondegietan oso baldintza txarretan egondakoak kalumniatea. Amnistiaz eta justiziaz mintzo dira, espetxean dauden militar apurrak herritar asko baino askoz hobeto bizi dira, eta, jakina, beste preso guztiak baino hobeto”.

Argentinan, 2005ean utzi zituzten bertan behera barkamen legeak eta Menem presidente zela geldiarazitako epaiketak berrabiarazi zituzte. Uruguairi militarrek eredutzat hartu duten AMDPE ez da errepresio-gileak babesten dituen elkarte bakarra. Cecilia Pandok zuzentzen du Argentinako Preso Politikoen Senitar-tekoen eta Lagunen Elkarte. Uruguain bezala, auziperatutako militarren aldeko kanpainak eta mehatxuak ugariak izan dira. Duela urte bi, Santa Fe hirian egindako epaiketa batean Pandok berak Giza Eskubide

Bulegoko zuzendari Eduardo Luis Duhalde mehatxatu zuen. Ezin dugu ahaztu ezta ere 2006ko irailaren 20an, Miguel Etchekolatz genozidak hil arteko espetxe zigorra jaso zuen egun berean, desagertu zela auziko lekuko garrantzitsuenetako bat, Julio Lope.

“Nire ustez, militar hauek Kondor usakumeak dira; aberria salbatzeko estatu terrorismoa justifikatzen duen ereduaren heziak. Argentinan, Venezuelan antolatuta daude, orain Uruguain. Lau katu al dira? –galdetu dio bere buruari Jorge Zabalza tupamaro ohiak– Ezin ditugu gutxietsi, 1972an egin genuen bezala”. ■

iRUnAZARRa
TaBERna • JaTeXea



Merkaderes kalea, 15 · 31001 IRUÑA (Nafarroa)
T 948 22 51 67 · info@irunazarra.es · www.irunazarra.org

Urteak betetzean...
Dibertitu Zientziarekin

Urtebetetze-festa ahaZteZina!

gizarte kutxa

www.kutxaespacio.es · 943 012 478

Saltzen duguna

Beñaten sailkapenaren arabera ni naiz hiruo-tatik iritzi saltzaileen artean maila baxuena-tan dabilena ziurre-nik. Eta orain, astean behin bai-zik ez dut egiten, gogoetarako aldi luzeagoa antzetzuz, baina lehen egunero, eta adituaren irizpiderik gabe, *Quick and Dirty*, eta eginez ikasiz, ama-teur.

DANI BLANCO



Uxue Apaolaza



Padrón



Sarasola

duenak, iritzia espero behar du, ez bere ikuspuntuaren norabidean, irakurlearenean baizik. Eta zentzu metafisiko batean han nonbait norbaitek maite gaitzan idatz dezakegu, eta *enter*-a maitasuna eskatzeak sortzen dituen beldur guztiakin sakatu, baina ezin diogu irakurleari psikologo lanik

eskatu. Agian lagunak etxetik ekarri behar genituzke, tentazioak tentazio –eta salbuespen oho-retsuek izan ezik–.

Ez zait iruditzen gainera iritzi emaileari asko eskatzen zaionik, erantsiko nuke, eta susmo bat bakarrik da, irakurketa sistematiko kontzienterik gabe osatua, euskal –euskaraz idazten dugun– zutabegileoi nahiko gutxi eskatzen zaigula, gutxiago ordaintzen zaigulako ziurrenik.

Gaztelaniazko iritzigile askori modako gaien inguruan adituak bailiran sententziaztea leporatuko banie, euskarazko, eta idatzizko iritzigintzaz ari naiz, kontrakoa esango nuke. Uste dut zutabeei eskatzen diedan gauza bat gaurkotasunari buruzko ikuspegiak izan daitezela dela, (nahiz ziur naizen hala izan gabe eginiko asko gustatu zaizkidala eta gustatuko), eta egia izanik gaurkotasuna zer den edo zer izan daitekeen erantzuten zaila dela, iruditzen zait, gure zutabegintzak gaurkotasunaren ikuspuntu zabalegia duela, zutabea egunkari domestiko bihurtzeraino; Beñaten lagunak lehendakaritza eskuratu

eta euskal potentzia nuklearra espainiar uretan frogak eginez munduari erakusten dion egunean, euskal zutabegileek gertaera ez aipatzea ez litzateke harritzekoa, nik barne (eta salbuespen ohoretsuek izan ezik). Eta ez dakit zergatik den.

P. S. : Kaixo denoi bide batez, nahiko urduri, onartzen dut, ez baitakit lehenengo aldi honetan zein aurpegirekin azaldu naizen zuen aurrera, ez dut argazkia begiztatu, azken letra hauek baino jende gehiagok ikusiko duena, eta merezi duen edo ez erabaki. ■

Jarduera hau hasi nuenetik irabazi dudana onena adikzio bat gehiago da, zutabe irakurlearena; egunero hainbat irensten ditut, filia obsesiboz, morbo politiko, haserrez, barre egiteko, arrakala bila... baita konpainia bila ere. Irakurleago naiz egile baino, eta gero eta mizkinagoa. Nire aukerak nire irizpidearen bilakaeraren arabera dira eta zutabetik zutabera, zenbait irakurri ondoren, ikasiz zoaz, eta konparazioak txarrak izango dira, baina ekidinezinak. Nik ez nuke gorroto hitza erabiliko, baina zenbait zutaberen lehen lerroak irakurri eta ezin dut aurrera jarraitu, arrazoi asko tarteko, hitz gutxirekin aspertu nautelako adibidez, eta autorea maite dezaket beharbada, baina ez bere zutabeak, eta bai, erabiliko dut, pixka bat gorroto dut, baina zentzu kasik ludikoan, aspertu naudelako: saltzen duguna da, argazkia barne, eta irakurlearentzat saltzen duguna gara.

Nik hutsunea sentitu dut zenbait autorek bere zutabea utzi duenean, hil balira bezala. Ez dira hil ordea, hortik zehar dabilta nirekiko independentea den bizitza batean (tamalez, salbuespen ohoretsuak izan ezik). Hiltzen dena bere testuarekin partekatzen nuen unea da, eta hori da epaitzen dudana, unilateralki; testuarekin nahi dudana egiten dut, baita eguneko *malaletxeak* jaurtitzeko boxeo zakutzat erabili ere, irakurtzeke argazkiari oihuka; idazleak izan du berea, hori nire unea da (argitalpen digitaletako erantzunetan sarri publiko egiten den ariketa zoragarri zeken eta intimoa). Iritzia ematen

Saltzen duguna da, argazkia barne, eta irakurlearentzat saltzen duguna gara.

Nik hutsunea sentitu dut zenbait autorek bere zutabea utzi duenean, hil balira bezala.

Ez dira hil ordea, hortik zehar dabilta nirekiko independentea den bizitza batean

GORA PRO NOBIS

Asisko Urmeneta



Imanol Alvarez

IRAKASLEA

Celaá ez da leloa



rain gutxi izan dira hauteskunde sindikalak irakaskuntza publikoan. Irabazle *Cum laude* euskal gehiengo sindikala izan da, hots, LAB, STEE-EILAS eta ELA. Dudabako galtzailea, aldiz, CCOO (eta UGT) izan dira, hots, Hezkuntza Sailaz jabetu direnak; Sailarekin (esan nahi bata, beraien buruarekin) lan-hitzarmena gutxiengoan sinatu zutenak... Zigor galanta jaso dute, bistan da, ustezko sindikalismo espainoltzaleak, eta hedaduraz Hezkuntza Sailak, Celaá buru.

Isabel Celaá berak, emaitzen balorazioaren ildora, hauteskunde politikoak eta sindikalak gauza difereenteak direla esan du prentsan, eta berak gehiengo politiko eta soziala baduela. Gehiengo politikoarena, jakina, egiazkoa da –beste kontu bat da nola lortu duen– baina sozialarena ja gehitxo esatea iruditzen zait. Edonola ere, MediaMarkteko bezeroak bezala, Celaá ez da leloa eta, aitortu zein ez, jakin badaki zeintzuk izan diren arrazoiak tamainako iraultetarako, nahiko agerikoak baitira, izan ere.

Alde batetik hezkuntzaren beraren esparruari dagozkionak daude: nola tematu diren, euskararen kaltetan, beste hizkuntza batzuk eskolan sartzearekin –berez ondo legokeena, tentuz eta adostuta egi-



IÑIGO AZKONA

nez gero–; nola eraldatu duten Irle programa, besteak beste, euskal kultura lantzeko ikastaroa kentzen saiatuz –neurri batean lortu ere egin dutena–; nola sartu nahi duten eskolan dotrinamendua, bakerako hezkuntza delakoan... Bestetik, lan eremuaren inguruko arrazoiak ere pisu handia izan dute gertaturikoan. Madrilen CCOOk (eta

UGTk) sinatu duten erretiro adina atzeratzeko eta abarrerako “akordioaz” gain, kontuan hartu behar dugu mota guztietako murrizketak ezarri dituztela zentroetan, batez ere ordezkatzeko egiterakoan. Adibidez, neure irakastegian lankide batzuk egon dira/daude bajak hartu gabe edota atzeratzen –ebakuntzak barne– besteoi enbarazurik ez eragitearren...

Sailburuak ez omen du norabidea aldatuko. Ikuskizun dago, baina hala balitz, oso zail izango du dituen planak inposizioaren bidez gauzatu ahal izatea, langileak gero eta are-

rioago izango baititu. Laster Osakidetzan izango dira hauteskundeak, eta osasun-langileen artean dagoen egonezina ere ezaguna da. Agian labor samarra naiz, ez dut-eta ulertzen menpekoak aurrez aurre izanda, eurenari irmoki eusteko seta hori.

Bengoa ez dakit, baina Celaá ez da leloa. ■

TXANDAN

Igor Estankona



Zera eskatzen da: Emakundek gizonezkoak behar ditu. Udaletan, aldundietan, gobernuetan, unibertsitateetan, sindikatuetan eta enpresetan patriarkatua kudeatuko duten goi-kargudun emakumeak behar ditu. Lanean hortzak erakutsiko dituzten emakumeak behar ditu, eta martxoaren 8a eurei eskaini die: AHTa bideratu duten emakumeak, alderdiak legez kanpo uztea eskatu dutenak, bizitza borrokari gupidagabe opatu diotenak, titia hurrengo egunean kendu dutenak, puntuak oraindik minbera batzarrera itzuli direnak.

Zera

Emakume horiek produktibitatearen arabera kobratuko dute, ez dute gizarte zerbitzurik izango, urte gehiago egingo dute lan, eta habian edukiko dituzte, halabeharrez, ume-sartak berandura arte.

Baina lanordur jakinik gabeko eguna sarturik, eta hala ere etenik bako formazioa eskainiko zaielarik, inguruan zapalduarik bizi diren esklaboen familietan eta hirugarren munduan zabalduko dituzte liberazioaren hitza eta eskutur telematikoa.

Eta emakume berri horiek ez diote gizonari ezer kenduko, horrexek emango die-eta euren lorpenei neurria, euren depresioei zentzua. ■

Kattalin Miner

TABERNA-ZULOKO IRITZIGILEA

Zu zara etorkizuna!



rain gutxi, unibertsitatean irakasle batek huts egin, eta ordeko bat etorri zitzaigun egun hartako eskola ematera. Ezer prestatzeko denborarik ez eta egun hartako gaia

alde batera utziz, gure etorkizunaz galdezka hasi zitzaigun banan-banan. Baten batek izan ezik, inork ez genuen argi erantzun gertuko etorkizun horren aurrean zein plan genuen. Nahiko ilun ikusten genuen dena, eta barre eta txan-txak egin genituen ohiko letretako ikasleonek etorkizun faltaz.

Irakasle hark ordea ez zuen horrelako jarrerarik onartzen, sutan jarri zen eta ez bat eta ez bi, letretako baztertu eta etsientzako *I have a dream* bertsioa eskaini zigun. Esan zigun etorkizuna gure eskuetan zegoela, unibertsitatetik at gizarteak behar gintuela, behar zituela gure mailako pentsalariak, analistak, kritikariak. Guk azaldu behar geniola munduari zer gertatzen ari zen, zergatik, eta errespetua lortu behar genuela. Isilik eta zintzo entzun genuen haren hitzaldia.

Baina eskolaren amaieran, diskurtsoa pil-pilean zuela, esan zigun, gakoa guk geuk sinestean zegoela eta hortaz, altxatzeko eta harekin batera “gu gara etorkizuna!” oihukatzeke eskatu zigun “ozenago! Ozenago! Ondo entzun nahi zaituztet!” batzuk tartekatuta. Nik zur eta lur alboko



DANI BLANCO

ikaskideak begiratzen nituen, *Osaba Samen* bertsio ebanjeliko horren hitzak barre artean baina zintzo, errepikatzen zituzten artean. Nik, nire gauzak hartu eta alde egin nuen hura bizkor ahaztu nahian. “Zelako tontakeria, hori errepikatzeak dena konponduko balu bezala!”

Gaur ordea burura etorri zait egun hura; lagun batek nire etorkizun planen inguruan

galdetu didan horretan. Kontatzen hasi zait gauzak pentsatu egin behar direla, planak izan behar ditugula... Nola, adibidez berak, karrera amaitu aurretik jada hirulau aukera pentsatuta zituen eta hori dela azken finean, orain horrelako postu egonkor bat izatearen arrazoia eta poztekoa dela, ezta?

Ni, ez naiz poztu, ez, ez naiz hain pertsona ona, baina zer pentsatua eman dit. Hala ere, “*lana ez da dena*” errepikatu diot nire buruari eta lasai amaitu dut eguna; baina egia esan behar badut (eta gure artean gera dadila), hortzak garbitu ostean (eta inork ikusten ez ninduela ziurtatu ondoren), baxu-baxu eta disimuloz, “zu zara etorkizuna!” errepikatu diot birritan ispiluari.

Eta bale, patetikoa dela, baina aizue, ez nazazue epaitu, zeren krisi garaiak denok izutzen gaitu, eta azkenean, denok bezala, batzuetan nik ere lanpostu on horregatik poztu nahiko nuke. Besterik ez. ■

‘Lana ez da dena’ errepikatu diot
nire buruari eta lasai amaitu dut
eguna; baina egia esan behar badut
(eta gure artean gera dadila),
hortzak garbitu ostean
(eta inork ikusten ez
ninduela ziurtatu ondoren),
baxu-baxu eta disimuloz,
‘zu zara etorkizuna!’
errepikatu diot
birritan ispiluari



txondorra
erretegia

☎ 943 794 276
Bizkaia pasealekua, 9
Arrasate (Gipuzkoa)

BERTSO BERRIAK

Miren Amuriza

Hegaz hasi orduko hegoak moztuta



I

Ehiztariak dabilta
tiroz mehatxuka,
ta enara gazte asko
zaizkigu ezkuta.
Kabitik urrunegi
askok dute buka,
askea izan nahiak
prezio hori dauka.
Askok dute buka
kaiolan sartu ta
hegaz hasi orduko
hegoak moztuta.

II

Zenbat ehizaldi bortitz,
zenbat sarekada,
kateatuta dauden
hainbeste enara.
Txori eta kaiolen
metaforetara
Euskal Herrian sarri
joan izan gara.
Metaforetara
itzultzeko jada,
errealitatea
gogorregia da.

III

Haur ameslari izan
zirenek behinola,
miresmenez ikusten
zuten Dragoi Bola.
Badakite munstroa
atzean dagola;
kalean itzal beltza,
bidean kontrola...
Atzean dagola,
nola ahaztu, nola?
belaunaldi oso bat
mina dariola.

IV

Mugaz bestalderaino
hedatu da gerla,
begira dugu Irlanda
begira Brusela.
Baina ikusi behar da
kartzelaz kartzela,
nola tratatzen diren
gazteak horrela!
Kartzelaz kartzela
darabiltzatela,
xake taulako piezak
balira bezela.

V

Pertsonekin egiten
dute batzuk jolas,
alde guztietatik
egurra emonaz.
Gure hitzak ordea
haizeak daroaz,
nahiz salaketak jarri
eta jantzi frogaz.
Haizeak daroaz
baina hemen denbora(ga)z
Itziarren semeak
ugarituz doaz.

VI

Baina udaberrian
beilegi-beilegi,
itxaropena loran
non ez da ageri?
Enarek kantatuaz
“Agur presondegi!”
noizbait euren bidean
ahalko dute segi.
“Agur presondegi
ta ehiztariari!”
Hegoak dauzkan oro
aske izan bedi.

DOINUA: “Itziarren semea”.



Bidali zure sortak bertsoak@argia.com helbidera. Aukeratuak orri honetan argitaratuko ditugu.

Thierry Biscary

«Tradizioari traizio egiten diot»

Musikari nekaezina da Thierry Biscary, mami artistikoari eta musikaren funtsezko zentzuari erreparatzen diona, beti ere oinarria tradizioan jarrita duela.

LANDER MUÑAGORRI

Argazkiak: Gaizka Iroz

1995EAN musika munduan sartu zenetik, hamaika taldetan jo du Thierry Biscaryk. Rocka, bluesa, musika tradizionala... Ipar Euskal Herriko panorama musikala ere goitik behera ezagutzen du Anauze-ko (Nafarroa Beherea) musikariak, eta horregatik sortu zuen 2006an Kalapitaria bloga (<http://kalapitaria.blogspot.com>). Bertan Iparraldeko hiru lurraldeetako euskal musikari gehienen kontaktuak biltzen ditu; Kalapita izenekoan (<http://kalapita.blogspot.com>) berriz, frantsesez aritzen direnak ere bai.

Iparraldeko musikariak Interneten elkartu dituzu, hauei plaza bat eskaintzeko?

Hori da. Gida hau kontzertu antolatzaileentzat aproposa da, baita musikarientzat ere. Askok uste zuten ez zegoela musikaririk Ipar Euskal Herrian, eta ez zela kontzerturik antolatzen. Nik ez nuen hala ikusten eta zerrenda hau egin nuen. Nola hedatu pentsatzen hasi nintzenean, hasieran liburuxka bat egitea pentsatu nuen, baina azkenean bloga izan zen modu errazena.

Gabezia bati erantzuteko sortu duzu?

Gabezia badago, baina blogak ez du elkarre-ragirik. Taldeak desegin egiten dira, eta berriak sortu. Agenda ere egiten dut astero, eta informazioa biltzea ez da hain erraza. Taldeek ezagutzen dute bloga, baina ez dute bidaltzen euren informazioa. Bloga arrunt mugatua da, eta uste dut horretarako sortuko dutela Topobass webgunea. Beta prozesuan dago oraindik, Euskal Herri osora hedatu nahi duen proiektua da, sare sozial baten gisan. Hego Euskal Herrian Musikazuzenean ere sortu dute orain gutxi, filosofia berarekin.

Hegoaldekoentzako bereziki baliagarria izan al daiteke? Oro har, Iparraldeko musikaz ezezagutza handia dago...



Gehiago ezagutuko dituzte bizkaitarrek Zuberoko musikari batzuk, ezagunenak edo zaharrenak. Esaterako, Peio eta Pantxoa, Niko Etxart edo Maddi Oinerart... halakoak. Baina egia da gutxi ezagutzen dela hemengo musika, ez dela zubirik egiten. Hemengo artistak hobeki ezagutzeko egiten dira ekimen ezberdinak, Koldo Mitxelena Kulturunearekin edota Kafe Antzokiekin, baina biziki handia da Hegoaldea, eta zaila da. Hemen manager bakarra dago, gainera. Hark kudeatzen



ditu ezagunenak diren artistak. Beraz, zure burua Hegoaldean aurkeztu nahi baduzu, manager horren bahetik pasatu behar duzu.

Ezjakintasunak ezjakintasun, zerrenda luzea osatu duzu webgunean. Iparraldean musikak indarra duen seinale?

Bai, Ipar Euskal Herrian beti izan du indarra musikak, eta horretan segitzen du. Hala ere, euskararen maila txikitu da biziki, ahuldu egin da. Urtero sortzen dira talde berriak, baina nik 2006tik ikusi dut euskaraz kantatzen zuten taldeen kopurua zinez txikitu dela. Lehenago baziren rock, heavy edo punk talde gehiago euskaraz kantatzen zutenak, baina moda hori pasa da; duela hamar urteko kontua da hori.

Eta horixe bera suma daiteke zerrendari begiratzuz gero. Kopuruz behintzat, musika tradizionalak pisu nabaria du.

Arlo horretan panorama ez dago gaizki. Harrigarria da ikustea hainbeste kantari euskaraz, Urepele, edo Baigorriko haranetan, batez ere. Preseski hor transmisioa ematen da, eta horregatik biziraute du oraindik. Eta entzuleen aldetik bada nahia musikariak entzuteko. Esaterako, pasa den urte amaieran *Imanol kantatuz* kantaldia lehenbizikoz eman genuenetik, Iparralde osoan jotzeko proposamenak izan ditugu.

Baina hori izan daiteke Imanolen kanta ezagunak direlako...

Beharbada bai, ez dakit. Horretan arrazoia duzu, kantaldiak gutxitu egin baitira, eta antolatzaileek ez dute arriskurik hartu nahi, plaza bete besterik ez dute nahi. Nik ene burua aurkezten dut nire konposaketekin, eta ez dut hainbeste eskaera jasotzen.

Zu doinu tradizionalen oinarritzen zara, ordea, musika berritzeko.

Horretan dago gakoa, baina biziki zaila da. Gazteen ikuspegitik kantu tradizionala zahar-

keria da, eta izan nahi dute pop-rock kantariak. Baina, gu ez gara pop kantariak, euskaldunak gara. Beste musika estilo horiek eurenkin dakartzate erritmo finkoak, eta azkenean galtzen da gure berezitasuna eta gure gorpuzak eskatzen duen erritmoa. Hemen kantatzen dugunean, gainera, notak luzatzen ditugu, pop-a abesteko garaian egiten ez den bezala. Formatu bat dago, eta hor sartzen saiatzen gara, baina ez gara behar bezala moldatzen. Erritmo horretan sartzen gara, baina ez da naturala geratzen.

Iparraldean kantatzeko modu bat dagoelako.

Hori da, eta gaur egungo artista asko ez da horretaz ohartzen. Saiatzen dira berritzen, baina kantuera hori oinarrian hartu gabe. Eta hori gazteei esplikatzea biziki zaila da. Itxaro Bordak hitzaldi batean “ni” eta “gu” bi izaeren arteko lotura eta diferentziak egin zituen. Esaterako, biziki zaila da “ni” esatea. Hemen “gu” esango dugu, eta ahotsean zure nortasuna erakusten baduzu ere, zaila da anitzentzat sentitzen duena esatea. Askotan tradizioan oinarritzen dira, baina tradizioa zer da? Latinez *traditio* da, eta bi ideia dauzka bere baitan: transmisioa eta traizioa. Horrek esan nahi du nik norbaiti ikasi diodala kantatzen, norbaitek transmititu dit kantatzeko molde bat. Eta ni ezberdina naizenez, nireganatu egin dut molde hori, baina 2011n ez dut duela 20 urte bezala kantatuko. Beraz, traizioa egiten dut, eta kontziente naiz horretaz, traidorea naizela. Baina transmititu duenak onartu behar du ematen duen hori utzi egingo duela, jakitun izan behar du hori aldatuko dela.

Eta gaurko gazteek tradizio horri nola eusten diote?

Ohartu naiz nik ere ez nekiela zer kantatzen nuen euren adinean. Eskolan kantatzen nuen, baina askotan kontziente izan gabe. Bitxia da, baina frantsesez kantatuko banu gauza batzuk ez nituen kantatuko. Gaurko gazteak ez dira ohartzen zein berezitasun duten kantu mailan, zer abesten duten, eta oraindik gutxiago nondik heldu den kantatzen duten musika. Askok kantatzen dute erritmo ezberdinetan, rocka, bluesa... eta erabiltzen dute halako estilo bat, baina onartu gabe non diren musika horien sustraiak. Eta hori ere pixka bat arriskutsua da. Zeren eta ez badakizu zure musika zertaz eginga dagoen, nola sortu nahi duzu ondoren?

Eta musika garaikideari dagokionez, Iparralde Euskal Herriari tiraka ari dela esango zenuke? Hau da, Euskal musika garaikidea Iparraldean sortu zen, baina orain ere buru izaten jarraitzen al du?

Guneka bai. Orokorrean Iparraldeko musikariak tradizioan oinarritzen dira, eta musika garaikidean ari direnak gutxi dira. Anitzentzat esperientazioa beldurgarria da. Zertarako balio dezakeen galdetzen diete euren buruari, eta hori ez dela musika edo kantua pentsatzen dute. Bada halako haustura bat: ahozko transmisioan ikasiko duzu kantua naturalki, eta esperientazioko teknika horiek kanpotik ekarritakoak dira.

Euskal musika, gainera, hemen modernizatu zen. Orain ere gauza bera esan nezake. Adibidez hor dago Ertz festibala, hemendik hurbil, edo baita Usopop ere.

Zu ere bide berriak zabaltzen saiatzen zara...

Hala da, ni beti atxikia naiz sorkuntzari. Nire lehen taldetik doinuak eta hitzak neronek egiten ditut, badut atxikimendua horretan. Ondoren, berbena talde batean ibili nintzen, egin ditut bertsio ugari eta hainbat talde ezagutu ditut, beste estilo batzuetakoak. Oraindik nire estiloa zein den zehazten ari naiz, zeren eta beste estiloak egitea ongi da, baina zurea propioa topatzea beste bide bat da. Atxikita nago sorkuntzari eta erraten dudanari, eta denbora honetan irekitzen zaizkit zenbait bide. Pozik nago gainera, joan den abuztutik profesionala izatea deliberatu bainuen.

Sorkuntzari begira, gazteenekin lan egin duzu, transmisioarekin. Etenaldirik badago zentzu horretan?

Transmisioa ez da sekula moztu. Hemen badira musika irakasleak eskoletan transmisioa egiten, baina Baionako kontserbatorioan ahaztu egiten dira gure kulturaz. Ez dute interesik erakusten. Maila txiki batean etxeetan, edo herriko musika eskoletan, transmisioa egiten da, eta preparamen dira musikariak

karrikarako, baina beste maila batera heltzea zaila da. Are gehiago kontserbatorioak zentzu horretan laguntzen ez duenean.

Ni eskoletan ibiltzen naiz pixka bat, baina ez da lan sakona. Urtero eskola ezberdinetan ari naiz, eta txalapartarekin hasten gara. Izan ere, guretzat txalaparta ez da musika instrumentu bat bakarrik, bada elkar entzumen bat, eta gauza asko. Horri esker azaltzen dugu ahozko tradizioa zer den, kantatzeko garrantzia zein den, eta zure baitatik adierazteko era bat dela.

"Gu ez gara pop kantariak, euskaldunak gara. Beste musika estilo horiek eurekin dakartzate erritmo finkoak, eta azkenean galtzen da gure berezitasuna"

Transmisio hori bermatzeko zer egin beharko litzateke?

Nik uste begiratu behar dugula musika nola dagoen eginda. Gaur egun baditugu musika entzuteko milaka posibilitate, nahi bezain beste. Hortaz, ohartzen bazara nola eginga den musika hori, hartzen duzu nahi duzuna, baina kontziente zara egiten duzunarekin. Gaurko gazteak interesa agian eduki dezakete musika jakin batean, baina ez dira mamian sartzen. Ene irudiko, Antton Lukuk erran zuena garrantzitsua da. Kultura egiteko garaian, gure baitatik abiatu behar dugu, eta ez besteei galdetuz zer nolako kultura nahi dugun. Ez, ez. Egin ezazu. Ez esan besteei zer egin beharko litzatekeen, hori denon ardura da. Horretaz gain, gehiago sinistu beharko genuke gure baitan, anitzek esaten baitute ez garela deus. Esaterako, nik beti ikusi izan dut ene aita bazkaritan abesten, eta orain utzia du. Nire ustez, berak ere sentitzen du kantu herrikoia zaharkeria dela, edo konplexua dauka. Euskararen erabilpena ere txikitzen ari da, eta horrek ere eragingo du.

Hala ere, ikusten dut sorkuntza planteatzen dela musika mailan, eta nik sinisten dut, horrek etorkizuna eduki dezakeela. Horregatik jarraitzen dut transmisioa egiten, badakidalako posible dela. ■



Laudio

Liburu azoka martxoaren 18tik 27ra, Lamuzan

EUSKADIKO LIBURU GANBARA

- Euskal eta erdal nobedadeak
- Euskal musika
- %10eko beherapena

Bizi irakurriz!

Moda

Naziak eta goi-mailako jostunak uste baino lagunago dira

John Galliano diseinatzaile britainiarrak istilua eragin du Parisen, alkohol gehiegi edan eta bikote baten kontrako irain antisemitak esan dituelako (“Judu aurpegi zikin horrekin, hilda egon beharko zenuke” oihukatu omen zuen, besteak beste); eskandalua medio, Dior etxeak kale gorrian utzi du martxoa hastearekin. Beranduegi: gertakaria probestuz, moda frantsesak nazismoarekin izan duen harremanari begiratu bat botatzeko tarte hartu baitugu.

GORKA BEREZIARTUA

“OKUPAZIO GARAIAN, naziak eta euren aliatu frantsesek Frantziako moda-industriaren indarra eta prestigio nazionala ikusi zituzten, eta erabilera bilatu zioten. (...) Naziak hain zeuden maiteminduta modak Frantziako kulturen zeukan lekuarekin, gerra osteko Europarako zeuzkaten planetan erabaki zutela, beste industriak ez bezala, modaren sektoreak Frantzia jarraituko zuela”. Rhonda Garelick Nebraska-Lincoln unibertsitateko irakaslearen hitzak dira, martxoaren 7an *The New York Times* egunkarian publikatuak.

Garelickek *High fascism* (Goi mailako faxismoa) artikuluan dioenez, asko izan ziren nazien aldeko diseinatzaileak, eta ez da kasualitate hutsa, kontuan izanda paralelismo batzuk behintzat badaudela moda-industriaren eta faxismoaren “estetika antidemokratikoaren” artean: biak ala biak fidatzen dira esku bateko atzamarrekin zenbatu daitezkeen lider karismatikoekin; lider horiek dira gero masei euren proklamak zabaltzen dizkietenak; eta bai faxismoak, bai moda-industriak, Garelicken esanetan, identitate mitiko bat eskaintzen diete jarraitzaileei —arrazaz arioak aurrenekoak; betiko gaztetasun eta edertasuna bigarrenak—. “Eta modaren gaur

John Galliano diseinatzailea irain antisemita batzuen kariaz bota dute Dior etxetik. Baina, zein da moda marka horren sortzailearen eta nazien arteko harremana?

egungo estandarrek arraza-dibertsitatea azpimarratzen badute ere, faxisten gorputz-ideala mantendu da, baita zabaldu ere Europatik askoz harago. Estetika naziaren zigiluak —begi urdinak, ile horia, gaitasun atletikoa eta angelu zorrotzeko ezaugarriak— dira oraindik itxura erabat amerikar gisa definitzen dugunaren elementu nagusiak”.

Nazien emazteentzat jostun

Teorizazio hutsala, iritziko dio norbaitek, eta beharbada Garelicken interpretazioa funam-



bulismo hutsa irudituko zaio, soka meharre-giaren gainean orekari eutsi nahian egindako argudiatzea. “Nazi”, azken finean, hitz gogorra da garai hauetan hola-hala esaten ibiltzeko. Eta gainera, Gallianori garesti atera zaio gehiegikeria, lana galdu baitu. Berez Dior etxearen izena salbatuko luke kaleratze horrek, ez da hala?

Goi-mailako modak nazismoarekin harremana (izan) duela frogatzeko sakonago eta atzerago begiratu beharko da; eta horretarako, ariketa mamitsua da Christian Dior zenaren historia arakatzeta. 1942an, 37 urterekin, Dior Lucien Lelong-en jostundegian hasiko da lanean. Vichyko gobernu kolaborazionistaren garaia dira eta Lelong agintarien ator berekin beztia da. “Gure zeregina Frantziari sosegu aurpegia ematea da. Zenbat eta doto-reago izan emakume frantsesak, orduan eta gehiago erakutsiko dio gure herrialdeak munduari ez garela beldur”. Eta beldur barik aritze horretan, ez Lelongi, ez bere taldeko lankideei, ez zien eskuak dar-dar egin ofizial nazien emazteentzat eta kolaborazionista frantsesentzat soineko eta traje dotoreak josten hasterako orduan.

Sosegua, dotoretasuna, naziak altrastetu direnean Lelongek problemarik gabe egingo du aurrera negozioarekin, Greta Garbo, la Rochefoucauld-eko dukesa, Rose Kennedy jantziko ditu eta bihotzekoak jota hilko da Angelun 1958an. Dior urtebete lehenago joan zen sator artera, baina 46an martxan jarri zuen markak gaur egun ere sona handia du eta ez da komeni naziekin izandako loturak haizatzeta. Horregatik izango da, Galliano afera lehertu eta hainbat hedabidek Diorren trapu zikinen artean svastikak azaldu direnean, korrika abiatu dela enpresa osoa, Sidney Toledano presidentea buru, argibideak ematera. Christian Diorrentzat II. Mundu Gerra oso garai traumatikoa izan

Vichyko gobernuaren garaietan Christian Diorrek ofizial nazien emazteentzat egin zuen lan

zela azaldu dio *The New York Times*ei, arreba kontzentrazio esparrura bidali ziotelako. “Dior etxearen bihotza” esan du Toledanok “ikusten ez bada ere taupaka ari dena, lan taldeek eta estudioek osatzen dute, jostunek eta eskulangileek; eta horiek gogor lan egiten dute egunero, ez dituzte inoiz orduak zenbatzen”. “*Arbeit macht frei*” hura akordura etorriko zitzaion azken hori leituta, beharbada, buru gaiztoren bati.

Françoise Dior, nazi petoa

Edonola, irakurlearen esku dago Christian Diorrek nazismoarekin izan zituen harremanak zenbaterainokoak iruditzen zaizkion jua-tzea. Zer edo zer izan zela azaleratzea komeni da ordea, hainbatetan berariaz ezkututzen den datua baita: Frantseseko Wikipediak, barbarako, bizpahiru lerrotan kontatzen ditu 1941etik 1945era bitarteko Diorren munduko ibilerak, norentzat josten aritu zen aipatu gabe.

Askoz garbiago dago diseinatzailearen ilobak, Françoise Diorrek, nazional sozialismoaren alde hartu zuen jarrera. 1960ko hamarkadako ultra-eskuinaren historiako kapitulu ahaztua da, baina ez da zaila hari horri jarraitzea Martin Walkerren *The national front* liburua aurkituz gero. Begira nola kontatzen duen Colin Jordan nazi britainiarrarekin ezkondu zenekoa: “Okasiorako, diamanteak txertatuta zeuzkan svastika formako lepokoa jantzi zuen. Ezti-ura edan zuten, topa egin zuten mugimendu nazi britainiarrarekin *Horst Wessel Lied*en doinuaz, eta svastika-trapuz estaliriko mahai baten gainean, zin egin zuten orbanik gabeko odol ariokoak zirela, atzamarrak ebaki zituzten eta beraien odola erortzen utzi zuten Adolf Hitlerren *Mein Kampf*en kopia birjin baten orrialde irekiaren gainera”. Bai, egia, diseinatzaileak eta ilobak ez zuten harreman handirik eduki. Baina esan: kasualitate batzuk ez al dira kasualosogiak? ■



IBERNALO
landetxea - jatetxea

Gozatu naturaz: hipika, arrantza, golfa, eskalada, amildegia...

01110 Kanpezu (Araba) - ☎ 945 102 271 / 647 911 484 - www.ibernalarural.com

Liburuak

KRITIKA

Hatsaren kulunka. Herta Müller.
Elkar. 344 orrialde. 22 euro.

Helduen literatura
Saioa Ruiz Gonzalez

Neurea den guztia

BIGARREN MUNDU GERRA amaitu berriarekin 17-45 urte bitarteko alemaniar jatorriko gizon-emakume errumaniar gehienak esparruetan kartzelaratu zituzten lan bortxatueta behartuz. Errusiarren begietan, alemaniar izateak froga nahikoa zirudien gerra bitartean Hitlerren erailketetan kolaboratzaile aritu izana leporatzeko. Erregimen naziak Errusian eragindako kalteak kobratu nahian, milioika errugabe herrialdearen berreraikuntza lanak egitera kondenatu zituzten. Bere garaian judutar nortasuna edukitzeak garbitua izatera kondenatzen zuen lege eztaba-daezinari jarraiki.

Hori ez da fikzioa, iraganeko historiaren gertakari gordina baizik, etorkizuna idatzi beharreko momentuan, argi intermitente baten antzera, gogoan izan beharreko abisua. Herta Müllerrek beste idazle askorekin batera, piztuta mantentzen du esparruetako gupidagabekeria jasan zutenen memoriaren argia. *Hatsaren kulunka* (*Atemschaukel*) azken eleberria, “hor izan nintzen” esateko, zorionez, hatsa mantendu zutenen oroitzapenen bidetik abiatzen da. Zehazkiago, Oskar Pastior (1927-2006) poetarekin izan zituen solasaldietatik bildutako oharretan oinarritua.

Leopold Aubergek hamazazpi urte zituen 1945eko urtarrian Soviet Batasunera deportatu zutenean, eta 1950eko urtarri arte ez zen etxera itzuli. Orainaldiko lehen pertsona idatzitako hirurogeita bost narrazio laburrek josten dute esparruan iragandako bost urteen tartea. Baina hainbeste urte ez dira dohainik pasatzen, eta horren dentsitatea esaldi bakoitzak bereganatzen duen pisuan antzematen dugu. Xehetasun minimoenak berebiziko garrantzia hartzen du: hondar horia, ikatza, zepa mokorrak, porlana. Paisaia osatzen duten elementuak presoekin bizi diren pertsonaia dira eta materialak protagonismoa hartzen duen heinean, gizakia bera ere materia bihurtuz doa, “objektuak bezala, ziurrenik gauzakiak” (183. orrialdean). Bizidun/bizigabe batasunak baina aldi bereko kontrasteak, gorrotorik helarazten ez duen idazkeraren tonu patetikoa agerian uzten du. Gizakia potentzia minimoenetara mugatua da, lan tresna bihurtu den arren bere mekanismo bitalak ez dira desagertu; gose-aingeruaren eldarnioa, nekea, gaixotasuna eta batez ere hatsaren kulunka, premiazko tresna autodefentsiboak dira, presoek daukaten guztia, biziraupen automatikoaren seinale.


Hatsaren kulunka da Gulag-ari aurre egiteko baliabide bakarra. Leopoldek dioen bezala “nirekin daramat neurea den guztia” (lehenengo orrialdean). Izan ere, gauzaki ala gizaki, arnastu bitartean bizirik gaude eta hortik kanpo ez dago beste ezer, inguratzen gaituen munduaz gainera. ■



Nur magia udalekuan

Toti Martinez de Lezeak hainbat liburu argitaratu ditu jada Nur pertsonaiaren abenturak kontatzen. Oraingo honetan *Nur eta magia-kanpamentua* liburuarekin dator. Titulutik igartzen denez, udaleku berezi batera joango da Nur liburu honetan, egiazko magia egiten den udaleku batera, alegia.

Handitzen denean mago izan nahi du Nurrek eta hori lortu ahal izateko lehenbiziko trikimailuak ikasteari ekingo dio orrialde hauetan. Baina udalekuan badira misterioak ere, eta horiek argitzeari ekingo diote Nurrek eta bere lagunak. Juan Luis Landaren ilustrazio koloretsuek jantzi dute Martinez de Lezearen testua. ■



Nur eta magia-kanpamentua.
Toti Mtz. de Lezea.
Erein.
169 orrialde.
13 euro.

Dortokak negu guztian lo egin nahi du

Txalaparta argitaletxearen eta OQOren elkarlanetik etorri da Roberto Aliak eta Alesandra Cimantoribusek egin duten *Dortokak lo egin nahi du* liburu. Negu osoa ohean pasa nahi du dortokak eta horretarako erritual osoa egin duenean (hortzak garbitu, kamisoia jantzi, maindireak jarri...) eta ohean goxogoxo sartu denean, norbaitek atea jo du. Bere lagunak dira, opariak ekarri dizkiote hainbeste denborarako lotara sartu aurretik. Dortokak eskertzen du, baina geroz eta logaleago da, bakean utz dezaten nahi du... Istorioa hizkera sinplez kontatuta dago, baina errepikapenen bidez, onomatopeiekin eta antzeko baliabideekin, narrazio ludiko bezain erritmoz betea osatzen du. ■



Dortokak lo egin nahi du.
R. Aliaga / A. Cimantoribus.
Txalaparta-OQO. 36 orrialde.

Diskoak

IKER BARANDIARAN



Uaouh, Miau & Yeah... Vol. I.
Gora Gora Kids.
Amateur Rekords.
Iraupena: 23'12". 5 euro.

Kantaren muinera joatearen jolasa

ROCK-AND-ROLLA barru-barrutik datorren orroa, soinu gordin eta basatia da, eta horixe bera askatzea erabaki dute Iruñea aldeko lau bizizale hauek (bitxikeria moduan kazetaritzarekin lotura zuzena dutela esan behar da). Oraindik instrumentuak jotzen ez dakitela dioten arren, 50eko hamarkadako rock-and-roll benetakoenari eta garageari txinpartak ateratzen saiatzen dira primitibismoaren haritik, baita lortu ere, euskarari gaztelaniazko eta ingelesezko

printza batzuk gehituta. Horrez gain, gai dira tarteka distortsioak, giro ilunagoak eta baita siniestroagoak ere lantzeko (horra hor *Zure ateak* bereizgarria, esaterako), nahiz eta badirudien halakoei —emaitza oso ona lortzen dute— azkar aspertzen dituztela, dibertsio kutsakorren alde. Zertarako da bada rock-and-rola? Akabo tontakeriak eta utzi askatzen!

www.myspace.com/goragorakids

Xabi Sagardia - Gora Gora Kids

«Jotzen ez zekiten talde askok musikari gauza ikaragarriak eman dizkiote»

Kazetariok, hobe dugu birtuosismoa alde batera utzi eta ondo pasatzea? Afizio berantiarra izan da?

Taldeko gehienoi birtuosismoak gogaitu egin gaitu beti, gainera gure musika tresnen erabilera mugatua da. Berez ez da afizio berantiarra. Igor eta biok nerabezaroan hasi ginen. Igorrek jarraitu zuen musika egiten, baina gainontzekook lehen aldiz ekin diogu orain. Beti esaten dugu 18 urterekin egin behar izan genuena hogeita hamapikorekin egiten ari garela. Baina orain etorri da eta oso pozik gaude.

Musika taldeak kritikatu aurretik musika jotzen ikasi beharra dagoela esan ohi da. Hain serio hartu duzue?

Kar, kar, kar. Behin esan zidaten kazetari musikaririk ez zirela. Hobe da zerbait jakitea gauzek zer nolako lana suposatzen duten

hobe ulertzeko. Baina uste dut musika jotzen jakitea baino, musika asko eta asko entzun behar dela kazetari musikaririk onak izateko.

Talde asko entzuteak erakutsi zizuen edonork egin dezakeela talde bat?

Edonork egin dezake, baina ez dagoena txarra edo ona delako, baizik eta norbaitek behar hori sentituz gero eskubide osoa duelako. Punkak hori erakutsi zigun, eta

musikari gauza ikaragarriak eman dizkiote jotzen ez zekiten talde askok.

David Attenborough. Rock-and-rola da dagoen musika biluzi eta naturala (artifiziala ez dena)?

Taldean hainbat eztabaida izan dugu honen inguruan. Baina ene ustez bai. Nik rock and rolla eta rocka bereizten ditut. Rock and rolla beltzen r&b-tik dator: abesti

motzak eta biziak, oso dibertigarriak, gauean dantzatzeko, irten aurretik entzuteko. Onomatopieak, animalien hotsak, amodio eta desamodiozko kantak... Gitarra soloak motzak dira, baina gustu handiz eginak, ikaragarriak! Beranduago rocka etorri zen, kanta luzeak... eta guk ere rock abestiak ditugu, baina garagearen "urgentzia" hori bilatzen dugu gehiago. ■



Ezpalak


JON TORNER

Dantza Zirkuituak 50 emanaldi eskainiko ditu 19 udalerritan

ABENDURA arte luza-tuko da Dantza Zirkuitua. Orotara 50 emanaldi eskainiko dituzte nazioarteko zein Euskal Herriko 25 konpainiak, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako 19 udalerritan. Tartean izango dira Koreako Jinjo Crew break dance taldea (irudian), Kataluniako La Intrusa eta Euskal Herriko Logela Multimedia (*Papiro... flexia*, *Zoo* eta *Ostrukaren zuloa* obrekin), Ertza (*Act of God*), Traspasos & Mikel Urdangarin (*Nora*) eta Amaren Alabak, Kukai eta Oreka TX, elkarrekin sortu duten *Hostoak* ikuskizunarekin. Dantza garaikidea izango da protagonista.



Nafarroako Museoak berritu egin du Historiaurreko aretoa



NAFARROAKO MUSEOAK Historiaurreko aretoa eraberritu du eta atzo ireki zuten ofizialki. Aretoak Historiaurreko 569 pieza gehiago biltzen ditu; modu horretan, 749 arrasto arkeologiko baliotsu dituen behin betiko erakusketa osatu dute Jesus Sesma eta Jesus García

komisarioek. Piezen artean, nabarmentzekoak dira Ariben aurkitutako emakume baten hezurdura edota Abauntzeko kobazulo inguruak deskribatzen dituen mapa. Maiatzaren 22ra arte aretorako bisitak doan izango dira eta konferentziak ere antolatu dituzte.

Rikardo Arregi kazetaritza sariak

MAIATZAREN 14AN amaituko da Rikardo Arregi euskarazko kazetaritza sarietara lanak aurkezteko epea. Orotara 16.000 euro banatuko dituzte Andoaingo Udalak eta Eusko Jaurlaritzak: Sari Nagusiaren irabazleak 9.000 euro jasoko ditu, Kazetari Berria sariaren irabazleak 3.000 euro eta Sari Berezia lortzen duenak 4.000 euro. Prentsa idatzian, irradian, telebistan eta Interneten lanean ari diren kazetariak parte har dezakete.

Miren Agur Meabek idatzitako *Mila Magnolia lore* (Mensajero) eta Ainhoa Irazustabarrenak itzultitako *Zein polita den Panama!* (Kalandraka-Pamiela) ipuinak 2012ko IBBY Haur eta Gazte Literaturako Erakundearen ohorezko zerrendan sartu dituzte. Bi urtetik behin berritzen da aipatu zerrenda. Ipuin proposamenak Galtzagorri Haur eta gazte literatur elkarteak egin zizkion Espainiako OEPLI haur literatura elkarteari. Aurreko ohorezko zerrendetan agertzen dira euskarazko hainbat lan. 2010koan esaterako Ruben Ruizen *Anekdotak* (Pamiela) liburua sartu zuten idazleen zerrendan, eta itzultzaileenean Xabier Olarrak Tolkien-en *Hobbitari* egindako itzulpena (Igela).

Maddi Elorzak *Iraganaren ispilu. Euskal Herria eta 'Novedades' aldizkaria 1909-1919/1928-1929* (Kutxa) liburua plazaratu du. Obra horren asmoa XX. mendeko lehen hereneko argazkilarien lana erakustea da, *Novedades* aldizkari grafiko eta ilustratuaren informazioa abiapuntutat hartuta. Donostian argitaratzen zen *Novedades* aldizkaria; guztira 402 zenbaki plazaratu ziren, bi etapatan banaturik.



WWW.DONOSTIAKULTURA.COM

Le Petit Théâtre de Painek, Artedramak eta Dejabuk elkarlanean sortutako *Errantsak* antzezlanak irabazi du Donostia Antzerki Saria. Ainara Gurrutxaga, Ander Lipus, Manex Fuchs, Miren Gaztañaga, Urko Redondo eta Ximun Fuchs dira aktoreak. Hilaren 27an –Antzerkiaren Nazioarteko Egunean– jasoکو dute saria Victoria Eugenia antzokian.

● **Sorkun musikariak Gaztezulon:** «Ukabila goratuz eta bi gitarra elektriko distortsionaturekin entzuleak dantzan jartzea badakit zer den, ez da horren zaila, baina oso bestelako kontua da ia biluzik jendea ez aspertzeta, ezta? (...) Prestigioak eta halakoek, bost axola... nazka ematen didate, egia esan. Azken aldian raperoekin elkartzen naiz Donostian, jende gazte batekin, eta haiekin halako txorakeria gutxi ikusten duzu. (...) Urte mordo pasatu ditut hala, oharkabean, gehiegi pentsatu gabe, eta, hara non, orain 34 urte ditudan honetan, zinez musika niretzat lana den honetan, oso zaila egiten zait honetaz bizitzea!».



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php

Abarrak

UNAI BREA

Asimovek bere betaurrekoetatik (aurre)ikusten zuena

Foundation. Isaac Asimov (Gnome Press, 1951).

OHI DUDANEZ, Wikipediatik osteratxo egin dut artikulu honi ekin aurretik. Eta beste askotan bezala, konturatu egin naiz zein lausoa den denboraz dugun pertzepzioa: seguru nengoen Isaac Asimov orain gutxi hil zela, eta hara, dagoeneko ia hementzi urte igaro dira. Berak ezin zuen jakin noizbait norbait Wikipediak baliatuko zela bere heriotzaren data



WWW.RAVEAU.CL

—Asimoven heriotzaz ari naiz noski— jakiteko, artean ia hamarkada bat falta baitzen sareko entziklopedia martxan hasteko, baina zelanbait aurreikusi zuen.

Agian nik uste baino denbora luzeago daramalako hilda, nik uste baino zailagoa da Asimoven liburuak lortzea. Ez gaizki ulertu. Joan edozein liburu-dentatara eta seguru errusiar-estatubatuarraren zerbait badaukatela, baina beharbada ez zuk nahi duzun hori. Hala gertatu zait niri beraren fikzio lan ezagunenarekin: Fundazioen trilogia (*Fundazioa*, *Fundazioa eta Inperioa* eta *Bigarren Fundazioa*), baina azkenean lortu ditut, hirurak bolumen bakarrean. Aspaldiko gutizia.

Trilogiak kontatzen duen istorioa hemen laburtzea ez da samurra: etorkizun urrun batean gizateria galaxia osoa zabaldu da. Galaxia osoa inperio bat da, izan ere, eta haren erdian dago Trantor, planeta-hiriburua. Planeta osoa hiri bat da, ez dago gizakiak eraikitakoa ez den txokorik. Han dago Inperioaren botere guztia bilduta, baina oso boteregune ahula da: bertako milioi-

ka eta milioika biztanleek kanpotik eramaten dizkieten jana behar dute bizirauteko. Azkenean, Inperioa desegingo da, eta aro ilun bat hasiko, gerra, basakeria eta ezjakintasuna nagusi. Gogorutzen Erroma, Erdi Aroa eta abar? Bada, horixe bera baina eskala galaktikoan.

XX. mendearen erdian idatzitako zientzia-fikzio lanen huts bera dauka *Fundazioak*: teknologiak aurrerapauso ikaragarriak egin ditu, baina Interneten arrastorik ez dago. Horregatik, Hari Seldon matematika-riak Inperioaren erorketa aurreikusi eta galaxiaren ertzetara fundazio bana igortzen duenean, haiek gizakien jakintza bildu eta entziklopedia unibertsal batean gorde dezaten, emaitza ez da Wikipediaren antzeko zerbait, askoz gauza artisautzazkoagoa baizik. Eta Wikipedia da, hala ere.

Baina irakurlearen usteak erdi ustel. Matematikak aurreikusi dute hurrengo Inperioa sortu bitarteko epea 30.000 urtekoa izango dela; Hari Seldonen planaren arabera, 1.000 urte besterik ez dira izango, baina hori ahalbideetako duena ez da Entziklopedia Galaktikoa, hasieran hala sinetsarazi diguten arren. Entziklopedia Galaktikoa aitzakia hutsa da, prozesua abiatzeko ezinbestekoa baina besterik ez.

Asimovek Wikipedia aurreikusi, baina garrantzia kendu. Nik barkatzen diot; azken batean, *Fundazioen* egindako iragarpenetan beste hau baita garrantzia daukana: matematikak jendartearen bilakabidea aurreikus dezake. Hori da orain zientzian modan dagoen arloetako bat. Ez dakiguna da, edo behintzat nik ez dakidana, matematikaren bidez aurreikusitako zibilizazioen hondamendiak eragotzi ahal izango diren. Goizegi dateke horretarako, baina tira, eman diezaiogun denbora denborari, eta bitartean txalotu dezagun Asimoven etorkizun-sena, hamarkadetan Jules Vernerena txalotu genuen bezala. ■




USURBIL ATEZ ATE
2URTE
ZORIONAK!

Denbora-pasak

ANA ZAMBRANO

Gurutzegrama



Ezker-eskuin:

1. Txorien kantua. Ogi mehea. 2. Liluratu, sorgindu. Berrogei, zenbaki erromatarrez. 3. Ibaietan, oinez igaro daitekeen toki. Gertaera on eta txarren iturburutzat hartzen den kausa zehaztugabea, zoria. 4. Landarearen begia. ...-apa, hitzez hitz. 5. Germanioaren sinboloa. Ordu, garai. Ikatzen kolore. 6. Herren. Zalutzero behartu. 7. Fruitu tropikala. Zeharo, guztiz. 8. Abelgorri ar heldu zikiratua, lanerako edo haragitarako hazten dena. Iratze-bilketa.

Goitik behera:

1. **Argazkian**. 2. ... Silveira, bertsolaria. 3. Laboreen alea ehoz ateratzen den hauts moduko. Gauza, kapaz. 4. Silaba hinduista. Bi alde edo gehiagok eginiko hitzarmena. 5. Gasteizen urtero ospatzen den rock festibala. 6. Otoz ..., ezustean. Naizen hau. 7. Bizi garen planeta. Txakur. 8. Tira eginez. 9. Koldar, kilil. 10. Pozkor, alegera. Zuhaur (alde-rantziz). 11. Geldi, lasai. 12. Moduak. 13. Ogi egosteko tresna. 14. Norentzat atzizkia. 15. Hitzordu.

Sekretuak

Bilboko Aste Nagusian, Algara konpartaren txosnan, kalimotxoan zain barrari itsatsita daudela ezagutu orduko, sua piztu da bi gazteen bihotzetan. Musu, igurtzi eta fereken artean hasitako gauak, baten pisuko gelan izan du jarraipena. Gau guztia kattottian eta alberdanian jo eta su, zuku eta izerdi pasa ondoren, hala esan dio mutil batek besteari:

– Gauza bat esan behar dizut: ni daltonikoa naiz.

– Lasai, ni ere ez naiz euskalduna. Senegaldarra naiz.

Haur lasaia

Erizaina haur jaioberriarekin sartu da amaren gelara goizeko lehen orduan:

– Hau ume lasaia! –esan dio amari, haurra besoetan utzi dion bitartean–. Bart gauean zuk bularra eman ondoren, sehaskatxoan etzan genuen eta izara ukitu orduko lo geratu zen. Eta gau guztian ez du zirkinik txikiena ere egin!

Eta amak, hasperen txiki bat eginez:

– Bai, sinisten dizut... Bere aita ere horrelakoxea da!

Sudokuak

Erraza

1	7	6		9	5			4
				1			8	9
8		4	3	2	6	1		
3	1		7	5	4	8		
		5				4		
		7	2	6	1		9	3
		2	5	4	8	9		1
5	3			7				
9			1	3		7	5	6

Zaila

				8	2		4	6
		8			4	5		1
						2		
3			8	5			2	
		2				7		
	1			2	3			9
		7						
6		1	9			4		
4	2		5	3				

Soluzioak

6	5	7	1	3	2	7	5	6
9	4	8	1	6	5	3	2	4
8	9	2	4	7	9	6	1	5
7	6	2	5	4	8	3	1	9
4	8	7	2	6	1	5	9	3
3	1	5	9	4	1	7	8	6
2	5	8	6	3	7	4	9	1
5	3	1	9	7	6	8	4	2
1	7	6	9	8	3	2	4	5

Erraza

Zaila

4	2	9	1	6	8	7
6	5	1	9	7	8	4
8	3	7	2	4	6	5
7	1	4	6	2	5	8
5	8	2	4	1	9	7
3	9	6	8	5	7	1
1	4	3	7	6	5	2
2	6	8	3	9	4	5
9	7	5	1	8	2	3

Ezker-eskuin: 1. Txio, Olatu. 2. Xarmatu, XI. 3. Ibi. 4. Om, Irua. 5. Azkena. 6. Oroan, Ni. 7. Lur, Oat. 8. Tinku. 9. Txepel. 10. Ahi, Uez. 11. Bare. 12. Enak. 13. Labe. 14. Tzar. 15. Zita.

Goitik behera: 1. Txingudi. 2. Xabier. 3. Irua, Gal. 4. Om, Irua. 5. Azkena. 6. Oroan, Ni. 7. Lur, Oat. 8. Tinku. 9. Txepel. 10. Ahi, Uez. 11. Bare. 12. Enak. 13. Labe. 14. Tzar. 15. Zita.

Zalutzero: 1. Txingudi. 2. Xabier. 3. Irua, Gal. 4. Om, Irua. 5. Azkena. 6. Oroan, Ni. 7. Lur, Oat. 8. Tinku. 9. Txepel. 10. Ahi, Uez. 11. Bare. 12. Enak. 13. Labe. 14. Tzar. 15. Zita.

MIHILUZE

BERRITUA

Froga berriekin gozatu eta barre egiteko



Telebistako programa
arrakastatsuaren
edizio berria!

- Erantzuna emanda asmatuko al zenuke galderaren erantzuna?
- Eroglifikoak deszifratzeko bezain ero al zaude?
- Sakiko mzkn dzn trbtasna rktsi

Eta beste hainbat froga dibertigarri...

- Zer da zer?
- Tribuaren berbak
- Potokumeak
- Horma

... zure hizkuntza aberasteko.



Zientzia eta teknologia

JOXERRA AIZPURUA

Izozmendiak nahi den lekurantz mugitzea ametsa ote?



4.BP.BLOGSPOT.COM

HILABETE HASIERAN France 3 telebistak emandako dokumental batean izozmendiak nahi den lekurantz mugitzeko posibilitateaz aritu ziren.

Adibidez, zazpi milioi tonako pisua eta 160 metroko sakonera duen izozmendia eraman al daiteke Artiko-
tik Kanariar Uharteetaraino? Urteetan Georges Mougin ikerlari frantziarraren proiektua izan zena Dassault Systèmes enpresak simulatu du,

tresneria ahalmentsuak erabiliz. Esan bezala ideia ez da berria, batek baino gehiagok amestu baitu aipatzen ari garen sistema ur gezaren eskasia dagoen lekuetara ura eramateko bide bezala. 70eko hamarkadan Georges Mougin frantziarrak Mohamed al Fayçal printze saudiarabiarraren laguntza izan zuen, baina proiektuan sortutako oztopoak zirela eta, bertan behera geratu zen.

Baina Mougin egoskorra da eta Dassault-ekoak konbentzitu zituen proiektua simulatzeko 3Dko teknologiak erabiliz. Eta sinistu ala ez, irakurle, posible omen da izozmendia Artikotik Kanariar Irletara eramatea 141 egunetan eta izotz-masaren %38 soilik galduz. Egindako simulazioan, izozmendia sare batez inguratu eta ur-korronteak, ekaitzak, uraren tenperatura, olatuak eta abar kontuan hartu dituzte. Orain enpresaren bat ausartzea baino ez da falta, inork hartuko al du arrisku hori?

Alzheimer: gibelaren arrastoa

ALZHEIMERRA garunean gertatzen diren hutsegiteekin lotzen badugu ere, *Journal of Neuroscience Research* aldizkarian argitara emandako artikulua batean, AEBetako Scripps Research Institute-ko ikerlariek gibela jotzen dute gaitzaren erantzule nagusitzat. Alzheimerren kausen artean amiloide kopuru handia dago, baina azken hau giblean sortzen den Presenilin2 gene-kopuruarekin ere erlazionatuta dago; beraz, Presenilin2 gene kopurua gutxituz gero, odolean eta garunean amiloide gutxiago metatuko dira eta ondorioz Alzheimerra garatzeko aukerak murriztu egingo dira.

Orain arteko probak saguekin baino egin ez badira ere, itxaropena zabaldu da proba horiek gizakiengan eduki dezaketan arrakastaz.

Molekula baten neurriko motorrak

Ibilgailuen motorrek pistoia eta enboloa duten bezala, gure muskuluen motorra nolakoa da? Galdera horren erantzuna aurkitu nahian, CNRSko eta Bordeleko Unibertsitateko ikerlariek nano-motorrak sortu dituzte, molekulatan oinarrituta.

<http://ttiki.com/24420> (Frantsesez)

Eguzki-zikloak hobeto ezagutu nahian

Eguzki-orbanen zikloak hamaika urtekoak izaten dira, hau da, hamaika urtez eguzkiaren jarduera biziagoa izaten da eta orban asko dago, eta beste hamaika urtez moteldu egiten da jarduera hori. Baina noizean behin, hain motela izaten da non eguzki-orbanak ere ez baitira agertzen. Zergatik?

<http://ttiki.com/24421> (Frantsesez)

Fruten eta barazkien onurak muskuluetan

Frutak eta barazkiak jatea osasungarria dela jakin badakigu. Baina zein neurritan? Suediako Karolinska Institutuko ikerlari talde batek, hainbat proba egin ondoren, ondorioztatu du fruta eta barazkiak jaten dituztenek oxigeno gutxiago kontsumitzen dutela ariketa fisikoa egitean.

<http://ttiki.com/24422> (Gaztelaniaz)

Babeslea: **iametza Interaktiboa**

web garapenak

multimedia

aholkularitza

edukiak

ideia batetik errealitatera

iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16

Landareak

JAKOBA ERREKONDO

Irakurleak galdezka

Kaixo Jakoba, orain dela 15-20 urte gorosti batzuk sartu nituen etxe inguruan. Batzuk itxura eskasa ari dira hartzen azkeneko bizpahiru urte hauetan. Hostorik gabe gelditzen ari dira, puntetan bakarrik dituzte hosto batzuk eta adar asko lehortzen ari zaizkie. Bestalde, kumeak edo gorosti gazteak ari dira jaiotzen enbor nagusiaren ondoren. Ez dakit zein den arrazoia, lurra antzerakoa da, nahiko pobrea omen da, eta urtero belarra mozterakoan –motosega erabiltzen dut horretarako–, inguruan lagatzen diet ongari gisa, besterik ez diet egiten. Zer egin beharko nuke, moztu enbor nagusia eta utzi kumeen bat edo gehiago landare berria hazteko? Edo ongarriren bat bota?

Eta beste galdera bat: weigelia izeneko lore eder bat daukat, eta nahiko itxia denez, etxeko atarian haizearen kontrako babesa ematen du, eta gainera loretan jartzen denean, ehunka lore larrosa-txuri kolorekoak ematen ditu. Hoge bat urte izango ditu eta zahartze itxura hartzen ari dira adarrak, batzuk lehortu ere egin dira. Ba al dakizu noiz egiten zaion inausketa? Carlos Ansola (Elgoibar).

Kaixo Carlos, zuen etxeko gorostien arazoaren gakoa desbrozadora dela iruditzen zait. Sastraka kentzeko makina edo motosega deitzeko proposatzen da, baina nik desbrozadora deitzeko ohitura txarra dut.

Sailak garbitzeko aurrerapen ederra da desbrozadora, baina erabiltzen jakin behar da. Makina bat landare hiltzen dugu urtero makina honekin, milaka eta milaka. Muturrean biraka dabilkien pitak gorostiaren azala ukitzen duenean ebaki eta zauritu egiten du. Behin eta berriz ebakitzean zauriak buelta guztia edo ia osoa hartzen duenean izerdiak ezin gora egin. Goikoa ihartzen hasiko da, landareak bizi egin nahi eta zauriaren azpitik berriro egingo da. Edozein parke edo lorategitan honelako adibide ugari dugu ikusgai.

Weigeliarena, *Weigelia floribunda*, seguruenera, loratu ondoren egingo nuke. Lorea udaberriaren hasieran ematen du eta ondoren hostoa. Hostorako izerdiak ederki itxiko ditu inausketa zauriak. Ihartutako adarrez gain, landarea gaztetze aldera, adar zaharrenak behetik moztu, baina denak batera inoiz ez, urtero-urtero bakar batzuk. Loraldi on.



Landareei buruzko galderaren bat egin edo gairen bat proposatu nahi badiguzu, bidali mezua **landareak@argia.com** helbidera eta orrialde honetan bertan irakurri ahal izango duzu erantzuna.

Azala azalari

SITS ETA TXIMELETEN ostatu dira belarrak, baina baita zuhaitzak ere: urkia, pagoa, haritza, ezkia, sahasak eta zumeak, astigar gorria, haltza, otsalizarra, hostazuria, maspila, lizarra, zumarra, hurritza, elorri zuria, udareondoa, sagarrondoa, irasagarrondoa...

Oraintxe fruitu arbolak paisaia nagusi dira. Elorri beltzak lore zuritan erditu ehundu dira, udareondoa, aranondoa, muxiak... Eta geroxeago gereziandoa, elorri zuria, irasagarrondoa, kiwiak, mizpirak, sagarrondoa... Zuria eta gorriaren arteko ñabarduren ikuskizuna abiatu da.

Loratzen den izerdi berria txertoak egiteko proposa da. Mentua eta mentu-oina itsatsi, elkar hartu eta aurrera.

Sagarrondo makatzak, sagarrondo basatiak mendian basoaren babesean bizi dira. Hauen aleak udazkenean bildu, mandioan heldu eta usteltzean haziak kendu. Haziok muintegian erein. Sortutako landareak zehar-aldatu sustraiak sendotu eta landareari hazteko behar adinako tartea emateko. Milaka urtetan aurrekoek jaso dituzten bere ezaugarriak eusten dien makatz haren alaba hauek izango dira gure sagastiaren euskarri, mentu-oin. Bertako basatiak baino hobe nork haziko du gainean txertatutakoa?

Mentu-oinak betirako bizitoki izango duten belazean landatuta daude. Atzo belaze, gaurtik sagasti. Martxoko ilbeheran txertaketa. Urteko lan ederrenetakoa. Aurtengoa urtebi handia eta pelestina taxonak txertatuko ditugu. Mentuak lehengo sagarrondoetatik hartuak, urteko puja ona, indarrean hazitakoa. Urteko pujaren erdi aldetik lau begiko puska kenduz zirujau lana hasten da. Mentu-oina nahi den garaieran ebaki, nire gusturako ahal den goienean. Labana gainean jarri eta mailutxoaz kaxk eman eta zartatu. Labana txorrotxaz mentuari koska egin, oinaren zartatuan sartuko dena, alegia. Azala azalaren pare jarri, elkarri izerdia eman diezaioten. Oinaren eta mentuaren zauriak estaltzeko erretxinaz, argizariz eta segoz egindako nahaskia urtu eta gainean eman. Hau hoztu eta gogortzean, balekoa. Hauxe aurtengo izerdi berriaren jain gure sagastian Artamugarriko Oihanek erakutsitako artea.



JAKOBA ERREKONDO

Denboraren makina

N A G O R E I R A Z U S T A B A R R E N A

Juno Moneta, diruaren jainkosa



HUMANITIES.MQ.EDU.AU



FONDO DEGLI EDIFICI DI CULTO

Ezkerrean, K.a. 46. urteko txanpon erromatarra; gainaldean Juno Monetaren irudia, eta, atzealdean, txanpongilearen tresnak eta izena (T. Carisius). Eskuinean, Juno Monetaren tenplua egon zen tokia; haren arrastoen gainean San Maria Ara Caeli eliza eraiki zuten Erdi Aroan.

ERROMA, K.A. 344. Juno Moneta jainkosari eskainitako tenplua zabaldu zuten Kapitolioan, hiriko zazpi muinoetako batean. Juno zeruko erregina eta argiaren jainkosa zen, haurdunaldiaren, erditzearen eta ezkontzaren babeslea. Kapitolioko hirukoa osatzen zuen Jupiter eta Minervarekin batera. Saturno eta Opsen alaba zen, Jupiteren arreba eta emaztea, Marte, Vulkano eta Ilitiaren ama. Ekaitzekin jokatzeko gustuko zuen eta, suminduta zegoenean, Olinpo osoa dardararazten zuen.

Baina erromatarrei mesede ere egiten zien, esaterako, Moneta ezizenpean. Kondairak dioenez, K.a. 390ean galiarrek Kapitolia eraso zuten. Baina Junoren tenpluaren inguruan zebiltzan antzarak (jainkosaren hegaztiak), ohi duten moduan, zalapartan hasi ziren eta horrek hiritarrak ohartarazi omen zituen. Horri esker, erromatarrek galiarrei aurre egin zieten eta, esker onez, jainkosari “moneta” ezizena eman zioten.

Hitzaren jatorria latinezko *monere* omen da (ohartarazi). Hala, Juno Moneta, jainkosa ohartarazlea litzateke. Zenbait adituren iritziz, ordea, hitzaren jatorria *mons* da, “muinoa” edo “mendia”, eta Kapitolioan lehengo ere zeruko erreginari eskainitako tenplua omen zegoelako hartu zuen izena.

K.a. 273. urtean, tenplua eraiki (edo berreraiki) eta hamarkada batzuk geroago, tenpluaren aldamean eta bere babesean zegoen eraikin batean txanponak ekoizten hasi ziren. Hurrengo lau mendeetan, Augusto enperadorearen agintaldira arte, Erromako zilarrezko txanpon guztiak lantegi horretan egiten ziren eta horietako askok Juno Monetaren beraren irudia zuten.

Horrenbestez, denbora kontua besterik ez zen izan txanponari berari “moneta” esatea. Eta handik etorriko ziren ingelesezko *money*, frantsesezko *monnaie*, gaztelarazko *moneda* eta italiarazko nahiz euskarazko *moneta*.

Arrastoak

Benetako Da Vinci kodea?

DA VINCIREN *GIOCONDA* enegarren aldiz ikertu dute. Oraingoan Silvano Vincetti historialari italiarrak izan du aztergai. Obra ezaguna eskanerretik pasatu du eta emakumearen begietan hizkiak topatu omen ditu: eskuinekoan “LV” (egilearen izena adieraziko lukete) eta ezkerrekoan “CE” edo “B”. Vincettiren ustez koadroko emakumea ez da Lisa Gherardini, askok pentsatzen duten moduan, eta letra horiek benetako modeloaren izena gorde lezakete, haren esanetan. Aurpegiaren eskuinean dagoen zubitxo batean “72” edo “L2” jartzen omen du eta mihisearen atzealdean “149” zenbakia dago idatzita. Sinbolo kabalistikoak dira? Koadroak kode misterioitsuak gordetzen ditu? Ala Dan Brownen sindromea besterik ez da?

LEONARDO DA VINCI



Kantonamenduetako bozak

Immobilismoaren aurrean posibilistak nagusi

Hil honen 20 eta 27an Pirinio Atlantiarreko Kontseilu Nagusiko 52 aulkien erdia berrituko da; 26 kontseilari hautatuko dira, horietatik 10 Ipar Euskal Herrikoak izaki. Beste erdia, 2008an hautatu zen. 2014az geroztik kontseilari nagusien orde, lurralde kontseilariak hautatuko dira.

MIKEL ASURMENDI

Argazkiak: Gaizka Iroz

LURRALDE KONTSEILARIAK Akitania Erregioko (Bordele) zein Pirinio Atlantiarreko Departamenduko (Paue) kontseiluetan egongo dira. Alabaina, 52 kontseilari nagusi izan orde, 45 lurralde kontseilari izanen dira. 2014az geroztik, lurralde kontseilari kargua sortuko da. Bozka eremuak gutxiago izanen dira. Frantziako Gobernuak bideratutako Lurraldeen Erreforma Legeak kantonamenduen mapa aldatuko du. Kantonamendu kopurua %25 gutxiago izanen da. Aldaketak landako biztanlerian eraginen du bere-

ziki. Hiri eta konurbazioetan hautesi gehiago izanen da baserri munduaren kaltetan. Estatuak deszentralizazioaren aldeko urrats gisa aurkeztu du aldaketa, herritarrek eta tokiko hautesi gehienek aldiz, are estatu zentralizatuago baten proiektua sumatu dute.

Pirinio Atlantiarreko Kontseilu Nagusia

Frantziako egitura politikoa bere azken Iraultza bezain zaharkituta dago. Paueko (Parlement de Navarre) Parlamentuan egoitza daukan

Pirinio Atlantiarreko Kontseilu Nagusia lekuko. 52 kontseilarik osatutako ganbara hau sei urtetan behin berritzen da, aldiari aldiko bi bozketen bidez. Hau da, Pirinio Atlantiarreko Departamendua osatzen duten 52 kantonamenduetako 26tan hauteskunde kanpaina dau den bitartean, ondo-ondoko kantonamenduetako bizilagunek ez dute bere-berezko interesik herri-auzoen bozetan. 2008an, 11 kantonamendutan bozak izan ziren, eta aurtengo martxoan 10etan; hurrenez hurren: Angelu iparraldea, Baiona



Ipar Euskal Herriko 21 kantonamenduetatik 10etan bozkatuko dute herritarrek.



Frantziako immobilismoaren aurrean, tokiko kontseilariak bide politiko posibilistagoak edota "aurrerazaleak" urratzera behartuak izan dira. Argazkian UMPko hautetsiak.

ekialdea. Baiona iparraldea, Baiona mendebaldea, Miarritze mendebaldea, Bastida, Hazparne, Iholdi, Garazi eta Atharratze. Ipar Euskal Herriko 10 eserlekuak hala nola Biarnoko 16ak Parisen nagusi diren bi alderdien esku daude: eskuin-zentristako (UMP-MoDem/Forces 64) eta ezkerreko (PS) alderdi frantsesen esku. Uneon, 26 aulkina ditu zentro-eskuinak eta ezker sozialdemokratak. Hainbat kontseilari, alderdi nagusi hauetako kide izan gabe, independente gisa hautatuak dira alderdi hauen sostenguekin, eskuindar joerakoak bereziki. Hazparneko kontseilari Beñat Intxauspe eta Iholdiko Jean-Louis Caset, konparazio. Bi itzuliko sistemen ondorioz, gainerako alderdiek kontseilariak lortzeko duten aukera hutsaren hurrengoa da. Ezker nahiz eskuin alderago dauden alderdiek zein Europe Ecologie Berdeek ez dute ere hautetsiak lortzeko ia xantzarik, EH Bai eta EAJ-PNB hautagaitza abertzaleek barne.

802 milioiko aurrekontua

Kontseilu Nagusiak tokiko enplegu, etxebizitza, garraio, ingurumen eta laborantza kudeatzeko zenbait eskumen dauzka. Kultura gaiez eta ekimen sozialez ere arduratzen da. Azken aurrekontua 802 milioi eurokoa izan da. Kontseilu Nagusiko presidentea Jean Castaings da, UMPko kidea. Bastidako kontseilari

eskuindarra. Bera da kontseilarien artean zaharrena. 73 urte ditu, eta horrexek eraman zuen —ezkerraren eta eskuinaren aulki parekotasuna zela medio— presidente izatera. Haatik, Jean-Jacques Lasserre zentristaren (Forces 64) inguruko kontseilariak dira Departamenduko politikan eraginkorrenak. Miarritzeko mendebaldeko kontseilari Max Brisson-ekin batera, biak ala biak, eskuineko politikari *notable* nagusiak dira. Ezkerraldean, berriz, Garaziko kontseilari Frantxua Maitia da ezkerreko *notable* esanguratsua. Angelu iparraldeko Jean Espilondo kontseilari eta Angeluko auzapeza (PSko jakobinoa) ez da boz hauetan aurkeztu.

Immobilismoa eta posibilismoa

Ipar Euskal Herriko herritarren nahia ez da Pirinio Atlantiarreko Departamenduaren politikagintza-aren garapenaren arabera, ezta Akitaniako Kontseiluaren arau ere. Erakunde bi hauen kudeaketak Parisko botereek erabakitako politikak moldatzera mugatzen dira. Tokian tokiko botereek —Bordeleko eta Paukoek— politika posibilista mugatua lantzen dute Estatuaren immobilismoaren aurrean. Badira, halaz ere, Hexagonoko politika immobilista aztoratu duten bi gai: azpiegiturak —autobideak eta trenbideak— eta tokiko kolektibitateek aldarrikatzen duten berezko institu-

zioa. Esaterako, azken urteetan, bi proiektu nagusi nabarmendu dira azpiegituren arloan: Nafarroan gaindiko 2x2 autobidea eta Lapurdi zeharkatu lezakeen LGV-AHT (Abiadura Handiko Trena) proiektua. 2x2 autobidearen proiektua geldiarazia izan zen eta AHT ez da bermatua. Bi ekimen hauen aurka ko mobilizazioetan herriko taldeek hala nola —eskuineko eta ezkerreko oposizioa diren— Europe Ecologie Berdeek eta EH Bai koalizioa indar abertzaleek berebiziko munta izan dute. Proiektu bi hauen aurka ko borrokak eta mobilizazioek Erregioako zein Departamenduko kontseilarien jarrerak aldarazi izan dituzte. Kontseilariak, eskuineko edo ezkerreko izan, bere eremuko —kantonamenduko— indar korrelazioaren arabera mugitu behar izan dute. PSko Frantxua Maitia kontsei-

Ipar Euskal Herriko herritarren nahia ez da Departamenduaren politikagintza-aren garapenaren arabera

laria da horren adibidea. Oro har, Frantziako sistema politiko immobilistaren aurrean, tokian tokiko kontseilariak bide politiko "aurrerazaleak" urratzera behartuak izan dira, nolabait.

Ipar Euskal Herria aitzindaria da Frantziako egitura instituzional zaharkitua berritzeko aldarrikatzen. Departamenduaren kudeaketan, eskuinak eta ezkerrek aulki bat dute jokoan. Beraz, politika posibilistaren jokoan areagotzen da. Departamenduko kontseilarien politika posibilista Frantziako immobilismoaren berme eta ezaugarria da. Ipar Euskal Herrian eskuin eta ezker egonkorak bi arerio nagusi dituzte: Berdeak eta ezkerreko abertzaleak. Horiek horrela izanik, tokiko kontseilariak ezkerreko ekologistaren eta abertzaleen lema bere egin dituzte. Bi itzuliko hauteskunde sistemak (bozen %12,5 behar da bigarren itzulira pasatzeko) errazten du tokiko eskuin nahiz ezker posibilisten politika.

Lurralde honek exijitzen duen berezko instituzioaren aitzinean, hala-moduzko joko politikoarekin erantzuten dute eskuin nahiz ezkerreko alderdi nagusi posibilistek. Estatuak Pays egituraren bidez behin-behineko erantzun murrizta eman dio eskakizunari. Pays izendapena bertan behera geratu ondoren, Ipar Euskal Herriaren ezagupen instituzionalaren eskakizuna aldarrikatzeko unea –bozen garaia– baliatu dute Batera plataformako indarrek. Baterak hautagaiak gonbidatu ditu “Lurralde kolektibitate berezia Euskal Herriarentzat” gaia hizpide. 72 hautagaietatik 18k parte hartu dute konferentzia-eztabaidan. EH Bai da Euskal Lurralde Elkar-goa boz kanpainen aldarrikatu duen bakarra.

Aurore Martin eta Irati Tobar

Ipar Euskal Herriko boz kanpaina honetan ezaugarri historiko bat nabari da atzera ere: Hegoaldeko gatazkaren zurrunbiloan garatu da enegarrenez. Frantziako justiziak Aurore Martin Batasuneko kidearen aurkako euroagindua ezarri du. Aurore Martin sasitan dago. EH Baiko hautagai ordezkaria da Atharratzeko kantonamenduan. Bien bitartean, agindu bera Espainiako poliziaren jazarpenetik ihes egindako Segiko kideen aurka ezarri zen. Zortzi kideetatik zazpi presondegian daude. Irati Tobar da –uneon– “libre” dagoen bakarra. Bera da, Aurore Martinekin batera, boz kanpainako irudi nagusietako bat.

Aurore Martinek Ipar Euskal Herriko hautetsi gehiengoaren –ia guztien– babesa dauka, tokiko



Kontseilu Nagusiko Jean Castaings presidente eta UMPko kideak Aurore Martin (eskubian) eta Segiko gazteen egoera salatu du (ezkerrean, Irati Tobar Segiko kidea). Castaings Nicolas Sarkozyren alderdi bereko kidea da.

eskuineko nahiz ezkerreko kontseilarien sostengua. Segiko kideek ere hautetsi –baita abertzale ez diren– askoren aterpe eta sostengua jaso dute. Atxilotuak izan direnean, ater-

Ipar Euskal Herriko boz kanpainen ezaugarri historiko bat nabaria da atzera ere: Hegoaldeko gatazkaren zurrunbiloan garatu da enegarrenez

be eman dieten hautetsi hauetako asko poliziak jazarriak eta kolpatuak izan dira. Paueko Kontseilu Nagusiak Aurore Martinen Espainiaratzea gaitzetsi zuen. Jean Castaings presidente eta UMPko kideak Aurore Martin eta Segiko gazteen egoera salatu du publikoki. Euroagindua errefusatzeko du orobat. Frantziako Gobernuaren Lurral-



deen Erreforma Legeak baserri eremuetako kantonamenduak zigortzen dituela esan du baita ere. Errepublikako presidente eta UMPko buru Nicolas Sarkozyren alderdi bereko kidea da Jean Castaings. Orain gutxi arte atzerri-ministroa izan den Michèle Alliot-Marieren alderdi berekoa. Frantziako justiziako, barne-arazoetako eta defentsako ministro izandako Donibane Lohizuneko auzapez ohia.

Laburbilduz eta ondorio gisara: boz kanpaina gai ugari eta anitzen inguruan garatzen ari da. Analasi politiko hau kanpainaren gaineko begirada bat baino ez da, Ipar Euskal Herriko hamar kantonamenduetako ezaugarriak –eta tokian tokiko hautagaien berezitasunak– aztertzetik urrun, Estatu baten sistema demokratiko zaharkitu eta immobilistaren menpe garatzen den tokiko herri demokrazia positibistaren –eta mugatuaren– lekukotasuna. ■



ALZOLA
ura

Berez mugatua
Kontzientzia ekologikoa duen
garapen propioa

Euskal Herriko ura

Alzola, Elgoibar (Gipuzkoa) • www.alzola.com

Hondakinak

Zer negoziatu dute bankuekin Zubietako erraustegia egiteko?

Joan den otsailean jakin zen Gipuzkoako Hondakinen Partzuergoak kontratua sinatu zuela Europako Inbertsio Bankuarekin eta beste bi banku pribaturekin erraustegia finantzatzeko. Kontratu horren edukia tantaka ari gara ezagutzen, eta badirudi, hartutako konpromisoak urte askotako eta baldintza gogorretako hipoteka ordaintzera derrigortzen dituela gipuzkoarrak.

URKO APAOLAZA

ABALIK EZ, baina garantiak bai. Horixe sinatu du Gipuzkoako Hondakinen Partzuergoak –Aldundiaren babesaz– erraustegia finantzatzeko. Europako Inbertsio Bankuak (EIB) 195 milioi euro maileratuko ditu eta La Caixa eta Banestok 68 milioi. Diru hori 21 urtetan kitatu beharko dute gipuzkoarrek, Euriborrean oinarritutako interes aldakorreko tipoarekin. Horren truke hainbat berme eskatu dituzte finantza-erakundeek eta kontratu batean ezarri dituzte horiek guztiak.

Kontratuaren edukiak hainbat egunkariren eta Greenpeaceko iturrien bidez zabaldu dira. *El Diario Vascok* lehenik aurreratu zuenez, iltzearen gakoa tarifa sistema izango da eta bankuen ingeniariak “etengabe” gainbegiratu dute finantzaketa. Horrela, Berria egunkariari Greenpeacek esandakoaren arabera, erraustegiaren errentagarritasuna ziurtatzeko hondakinen partzuergoa derrigortuta legoke hondakinak tratatzeko tarifak garestitzera, bankak hala eskatuz gero. Bestalde, partzuergoak ezingo ditu bere estatutuak aldatu bankuen baimenik gabe, eta marko legal horretan, mankomunitate eta udalak behartuta daude euren zaborrak partzuergoaren instalazioetara eramatera eta hipoteka ordaintzera.

Nork kontrolatuko gaitu?

Bankuei helarazitako zifrak ez dira Gipuzkoako hondakinen planeko berberak. Eusko Jaurlaritzako ingurumen baimena lortzeko txostenean 320 milioi euro ziren proiektu osoarentzat, baina EIBren finantzaketa kontratuan jartzen duenez 478 milioi euro kostako luke. Interesak gehituz gero, 580 milioi euroko gastuak lirateke Greenpeaceko iturrien arabera, BEZa kontuan izan gabe. *Hernaniko Kronikak* egindako elkarrietzeta batean, Julian Zapiain eta Pepe Rivanedeyra EHUKo irakasleek diote “gutxienez 1.000 milioi

euro” ordainduko dituela Gipuzkoak azkenean.

“Printzipio akordio bat da, dirua pixkanaka joango dira libratzen, hitzartutakoa betetzen duzula egiaztatzen den aldiro”, esan zuen Greenpeaceko Julio Bareak Hernaniko Kontrakantxa gaztetxean partzuergoak sinatutako kontratuaz emandako hitzaldian. Egiaztapen hori egiteko, bankuek aholkularitza eta auditoria bufette entzutetsuak erabili ohi dituzte: Cuatrecasas, Deloitte... Kontratuarekin zerikusia duten guztia gainbegiratzen dute, hala nola: hipotekadunaren diru-sarrerak zein diren, ondarea, konpromisoak... Eta hori guztia hitzartutakoarekin kontratatzen dute, bermeak betetzen ari direla ziurtatzeko.


Organikoa erraustea

EIBrekin sinatutako kontratuaren anexoetan proiektuaren deskripzio teknikoa azaltzen da, eta bertan konpost planta bakarra aurreikusten dute, urtean 7.000 tona hondakin konpostatzeko gaitasunekoa. Beraz, Gipuzkoako hondakinen planean azaltzen diren gainerako bi konpost plantak ez dira egingo. Gaur egun martxan dagoen planta bakarra Azpeitiko Lapatzekoa da; 2.500 tona hondakin jasotzeko gaitasuna du, baina 2010ean 4.000 tona jaso ziren, batez ere organikoa atez ate



EIBren egoitza nagusia Luxenburgon.

Zubietako erraustegiaren diru kontuak



- (1) Greenpeaceko iturriek emandako datua, euren estimazioaren arabera. Kopuruari BEZa gehitu behar zaio.
- (2) Gipuzkoako Hondakinen Partzuergoak ElBren sinatutako kontratua azaltzen den kopurua.
- (3) ElBk %50 mailegatuko du, Gipuzkoako Aldundiak %33 arte finantzatu (127 milioi euroko aurrekontua erreserbatu du 2009-2013 artean), eta gainerakoa Banestok eta La Caixak utziko dute maileguan.
- (4) ElBren eta GHPren arteko kontratua agertzen den baldintza da.

bildu zuten udalerrietatik bidertuak. Hau da, 1.500 tona organiko zabortegira bota zituzten. Aitzitik, Gipuzkoako Aldundiak onartutako planean aurreikusten zen 2009rako hiru konpost planta eraikita egotea eta 2016rako 60.000 tona organiko konpostatzea. Beraz, bankuekin sinatutako kontratuan, partzuergoak konpostatzeko estimazioak nabarmen jaitsi ditu. Zergatik?

Azkeneko urteetan sortutako zaborra murriztu egin da krisiaren ondorioz, eta horrela jarraituz gero, erraustuko den zaborrak nekez gainditu ahal izango ditu 200.000 tonak. Finantza-erakundeek esku artean duten dokumentuak baina, 260.000 tona zabor tratatzeko gaitasuna izan dezakeen erraustegiaz hitz egiten du –hirugarren linea jarri gero 315.000 tonara irits litekeena–. Partzuergoak kopuru

horretara hurbiltzeko moduko proiektua aurkeztu die bankuei, beraz.

Dena den, erraustegiaren errenta-garritasuna ezbaian jarri duen beste datu bat ere azaldu da berrikitan. Eraikuntza lanen lehiaketan parte

hartu duen BEFESAren eskaintza-
ren arabera, erraustegiak sortuko
lukeen energia kopurua txikiagoa
litzateke. Zehazki, urtean 1,2 milioi
euro gutxiago lortuko luke Zubietako
plantak elektrizitatea salduz. ■



SOLOZABAL

*Eskura ezazu teorikoa 5 egunetan
edozein gidabaimenerako*


-  IKASTARO INTENTSIBOAK
-  CAP IKASTAROAK
-  ADR IKASTAROAK
-  GARRAIOLARIEN LANBIDE-
TREBAKUNTZAKO IKASTAROAK

 943 217 390

www.solozabalautoeskolak.es

CAMINOS

3D estrategia jolasa




Noruntz eta nola iritsi?

Zein da bidea?

Taularen bi alde lotzeko bidea egiten asmatu beharko duzu kolore bereko eta forma desberdineko piezekin.

Horretarako zure aurkariak bidean jartzen dizkizun oztopoak gainditu beharko dituzu.



29€

ARGIAREN
HARPIDEDUNENTZAT
24€

Ludi**toys**

ESKAERAK: ☎ 943 36 86 61 | info@luditoys.com

Arribillagatarren kantu kaiera

Loti ederra beti kantuz

1916an, lumaren burdin kirrinka isildu zenean, koadernoaren orriak horituz joan ziren, iduri betiko lo. Baina Arribillagaren kantu kaiera iratzartu dute. Senpereko loti ederra liburu moldean berpiztu da: XIX. Mendeko kantu ahantziak, Musumieleniako Marcel Arribillagaren kantu kahiera.

ITZIAR MADINA

Argazkiak: Halsa Elkartea

SENPEREKO Musumielenia etxeko Arribillaga familiaren ondorengo zuzenetan, azkena da Marie-Jeanne Arribillaga-Mauchamp, Marcel Arribillagaren bost ilobetan gelditzen den bakarra. Marie-Jeanne adin handiko emaztea da engoitik. Amets artean bezala baieztatu digu “bai, plazer handia” sentitu duela jakin duelarik liburuaz plazan dela. Baitaki hortaratzeko, hainbat esku eta bi mende elkarlotu behar izan direla.

Marcel Arribillaga Musumielenia St Pée s/r Nivelle. Hala dio Marcelen kaierak. XX. mende hasierako eskolako idazkera zaindua, denboraren desafiatazaila da estalki ilunen azpian. Bere lehen orrietan zut lerrook darakuskien Musumieleniako koadernoak ehun urte bete berri ditu. Senpereko karrikaren eta baserriaren mugan bizi izan den etxea da Musumielenia, Urdazuri ibaiaren ondoan. Han zen ahotik belarrira, belarritik lumara, Arribillagatarren kaiera mamitzen joan, dozena erdi bat urtez ehun kantu pasa bere baitaratzerraino. Marcel Arribillaga, Marie-Jeanne osaba,



Eserita, Antonio Arribillaga eta Marianne Messanges gurasoak. Haien seme-alabak ezkerretik eskuinera: Mari, Marcel (kantu kaieraren jabea), Jan Battitt eta Maixan Arribillaga.

lau anaia-arrebetan hirugarrena zen, ofizioz laborari. Bertsozalea eta kantari fina, bestalde. Anaia Jan Battitt, Marie-Jeannearen aita zena- rekin abestuz jetzi ohi omen zituen behiak. Eta Arribillagatarrek ez bide zuten lau patako marrumalaria publiko bakarra. Horietan ziren jakin gabe, kaieraren lehen printze salbatzaileak. Kantu herrikoia agor-

tu zeneko eguna jin baitzen, jin ere, Lapurdin nola Euskal Herri osoan hala Senperen. Baina memoria kolektiboaren zoko batean gelditu zen behiala, Musumieleniak ereserki bilduma bat eman zuela. Barnean trumilka abesti zituela, bertsoaldi labur ala luze, trufazko, moral oneko, amodiozko ala gerlako oroitzapeneko. Zaharrenek gogoan zituzketen Arribillaga anaien ahots ederrak. Besteek misteriozko koaderno. Belaunaldiz belau- naldi. Inork ez zezakeen erran alta, XXI. mendeak ernaraziko zuela modernitatearen musuak lokarrarazia.

Ustez galdu zena
XIX. Mendeko kantu ahantziak, Musumieleniako Marcel Arribillagaren kantu kahiera liburuaren aitzin-sola- sean Piarres Xarriton *Ehulategi* gogoratzen da “ene lagun ona Xarles Arribillaga, gutarik urrun zendu zelarik Bordeleko eskualdean, neu ibili nintzela, Xarlesen arreba (Marie-Jeanne) berak gomendaturik, baina debaldetan, kantutegi hori, hatz ez behatz nehon ezin atzemanetz”. Liburuaz plazaratzen

lagundu duen Hatsa elkarteko kide den Auxtin Zamorak oroitarazi duenez, “Musumieleniako familiak bazekien liburuxka Xarlesen eskutan zela, baina bera zendu zelarik, nehork ez zuen asmatu, Lafitteri utzi izan zekiokeela”. Eta Xarritonek aitortu du, uste izan zuela “ez zela Arribillagatarren kaiera Barbier ala Borotra xuri-xurien kantu guztiak zeuzkana nehondik neholaz uztariztar apaiz ameslari gorriaren eskutara erori ahal izan”. Usteak erdia ustel.

Marcel Arribillaga, ofizioz laborari. Bertsozalea eta kantari fina, bestalde. Anaia Jan Battittekin abestuz jetzi ohi omen zituen behiak

Xarles Arribillaga Uztaritzeko seminarioan ikasketak egindakoa zen, nor eta Aita Piarres Lafitteren zurkaizgo pean. Frantses irakasle bihurtu eta Bordeleratu zen. Senpere Musumielenian, aitaren sortetxean, osaba Marcel hiltzean baina, Xarles euskaltzaleak ez zuen dudatu: burdinazko lumaz *Marcel Arribillaga Musumielenia St Pée s/r Nivelle* idatzia zeukan koaderno bereganatu zuen. Haatik, 44 urte zituela, hil zen Xarles Arribillaga 1969an. Senpereko hainbat etxe, hainbat esku idazle eta belarri xaramelazale eza-gutu zituen liburuxkak Girondako bere erbeste laborra amaitu zuela ez zuen inork jakin. Hatsa eta Oxtikenea elkarleen lanari esker dakigu gaur, Piarres Lafitte euskaltzainak kaiera horren barnean aurkitu kantu zenbait, ziren bezala erabili zituela, *Xaramela*, *Kantuz* eta *Kantu kanta kbantore* kantutegietan nabarmenki ezarriarik. Hitz batez, Musumieleniako paretak dardarazi zituzten, mende bat berantago ezin ezagunago eginen ziren Euskal Herriko hainbat abestik, *Adios ene maitea*, *Intxaunzpeko alaba*, *Itsua eta sastrea*, *Zazpi eibera baditut* edo *Ziburutik Sarara*, eta gehiagok ere.

Dena dela, izan Jean Barbier “xuri-xuri” ala Lafitte “ameslari gorri”, apaizek, XXI. mendeak eta euskaltzaleasunak galtzetik begira-

Atzoko kantuen gaurko maitaleak

XIX. Mendeko kantu ahantziak, Musumieleniako Marcel Arribillagaren kantu kahiera berreskuratzen lagundu duten printzeetan nabarmentzekoak, Hatsa eta Oxtikenea Senpereko elkarleak dira. Liburuak frogatzen du abesti zaharren bilaketa amaitutzat ematea zaila dela. Urteetan apalategi ala ontzi zokoratueta bildurik dauden dokumentuak badaitezke, Senperen, ala auzo herrietan, nork errauts artetik jalgi zain. Ikusmolde hortakoa da Auxtin Zamora, baina zuhurtzia behar dela badaki: “Etxez etxe behar da ibili. Kasik ateak bortxatu, manerarekin gero! Ez baita erraz, etxeetako intimitatean sartzea. Astia anitz eskatzen du horrek. Behar zaie jendeeri luzaz mintzatu, beharbada, noizbait erranarazi arte: ‘A! Bai! selauruan badugu bai, zerbait aspaldikoa!’”. Ohargarri da Hatsa eta Oxtikenea elkarlekoek jadanik hiru aldiz atzeman dutela “zerbait aspaldiko”, Lapurdiko kantutegiaren aberasgarri. 2001ean, *Senpereko kantu xaharrak* izan ziren eta 2006an *Sara, Senpere eta Azkaingo atzoko kantuak*. Aurten, *XIX. Mendeko kantu ahantziak, Musumieleniako Marcel Arribillagaren kantu kahieraren* aldi izan da. Kantaraziko duten hurrengo loti ederra zein izan den, geroak erranen.



Panpi Zamora, Marie-Jeanne Arribillaga, Auxtin Zamora, Mixel Arribillaga eta Mixel Mendiboure.

tu liburua da *XIX. Mendeko kantu ahantziak, Musumieleniako Marcel Arribillagaren kantu kahiera*. Berriki Euskaltzaindiak atzeman du Lafitterek 1985ean utzi fondoa digitalizatzerakoan. Zamorak hala dio: “Pentsa dezakegu holako kantutegi baten atxikitzeak nonbait, kontzientzia baten ardatza segitu duela. Ohartuz, gure garaian ere, Arribillaga familia euskarari oraino atxikia dela, ikusiz Barbierrek euskal funtsari zion atxikimendua, jakinez Piarres Lafitte zer aditua zen euskal kulturari, bai, atxikimendua agertzen dela ez da dudarik. Bestela aspaldi, zaharkeri inutilla bezala, kantutegi hori asko etxetan zikindegira jaurtikia izan den”.


Gerlako eta amodiozko kantak

Liburua *Gernikako arbolaren* hama-bi ahapaldiek abiarazten dute. *Ipbarraguerrek moldatuak* darakuste hizki larriek guztien buruan. Honetaz gain, Musumieleniako semearen koadernoan datozen 110 kantuetan hiru baizik ez dira izenpetuak. *Gerlako kantuak* J. Albandoz izeneko batek eta azken biak, Jean Barbier apaiz idazleak. Barbier Musumieleniako familiaren oso hurbilekoa zen. Maixan Arribillaga Marcel eta Jan Battittaren arreba gaztea beretzat ari zen idazkari eta pentsatzen da honek zituzkeela bertsoetako asko kaieran idatzi. “Maixan Arribillaga, kasik serora sartzeko puntuan zen”, dio Auxtin

Zamorak “baina Jean Barbieren eraginez, irakasle sartu zen Senpereko San Josep eskolan. Bizi zen elizatik bi pausotara eta beraz nabari da, Barbier eta Maixanek elkarrekin lan egiteko baldintza onak zituztela”.

Marcel Arribillagaren koadernoko azken kantua den *Herriatik nere haurrari gerla tokira* izenekoa, Jean Barbierrek berak idatzitua da. 1916ko martxoan data dakar, hots, Lehen Mundu Gerla bete-beteko. Gerla horri buruzko kantuak hain zuzen, irakasgaiez beteak zaizkigu; XX. mende hasierako Ipar Euskal Herriko euskaldunetan frantses nazionalismoa fede giristinoaren eskutik zihoala ohar-tarazten digute-eta. Alban-dozen bertsoek honela diote: “Kuraie handi azkar batekin lotu ginen bideari / Frantsesekilan gu eskualdunak, esku emanez elgarri / Gure otoitzak entzun araziz zeruko Aita onari / Bitoria eman dezakola Frantses herri maiteari”. Baina ez Arribillagatarrek ez kaiera hartan idatzi zuten besteak bide ziren sektarioak. Irakurri besterik ez dago *Lehen eta orai* bertsoaldia. Laborarien ikuspegitik idatzia, Aitzin Erregimenean erregeek pizten zituzten gerlen kontrako aldarria da: “Gerlarat igortzen / Eta han inozenteek elgar xahutzen”. Baita berdintasun sozialaren aldekoa ere: “Ala dadin aberats ala pobrea / Gizona gizonaren duk haurridea / Eta guk goratzeko besteen apaltzea / Gure anaiari duk laido egitea / Elgar aditzea / Elgar maitatzea / Eta laguntzea / Hori duk egiazko jainko legea”.

Kirri-karra, lumaren zorrotza paperaren gainean. Maixan Arribi-



Liburuaren azalak Marcel Arribillagak jasotako abestien koadernoaren beraren azala du.

“Pentsa dezakegu esku gazteak zirela idazleak, amodioak toki handia duelako kaiera osoan”

AUXTIN ZAMORA

llaga halako edo holako kantua kopiatzen ari. Eta besteak, nork egingen zituen? “Pentsa dezakegu —dio Auxtin Zamorak— esku gazteak zirela idazleak, amodioak toki handia duelako kaiera osoan (45 kantu 110en artean). Amodioen sasoia, naturalki edo gehienik bederen, gaztaroko errealitatea da”. Maitasun penak, gogoz kontrako ezkontza proposamenak, amodio zuhurrak ala segitu beharreko bide-

tik guztiz kanpokoak, denetarik dago Musumieleniako kantu bilduman. Kasurako *Xori Erresinoleta* olerkiak hegaztien metafora hartzen badu ere gordinetik ari da beldurrik gabe: “Bat arra zen eta bertzea emea / Ez zen mirakuilurik parekatzea / Lehen ere / Duda gabe / Ikusi ez balu / Harra hura ez zen joanen sasi hartara / Emea ez balitz jin bidez erditara. Eta emea non zen orduan / Sasi handian barna sartua / Lumaturik / Apaindurik / Bere papoa / Kukurusta harroturik jarri zenean / Errutera sartu zen bere ohantzean”. Honek burutik kendu digu kantu liburuak neguko arratsetan familiar-tean kantatzeko eginak zirela, eta Marcel Arribillagaren koadernoaren gainbegiratailea Jean Barbier apaiz “xuri-xuria” bera zela. Ala pitzadurak izanen ote zituen, alta ez hain aspaldiko jendar-te tradizionalista hark ere? *Ciento cincuenta reales* kantuak gaztelaniaz ezin argikiago dio: “*Ciento cincuenta reales / Me han ofrecido / Para poner los cuernos / A mi marido. [Errepika] Todas las noches estoy / Siempre pensando a ti / Yo me muerdo de amor / Bai triste de mi (bis). Ciento cincuenta reales / No se han de perder / Cuernos a mi marido / Se le han de poner*”.

Kantu bakar batzuek data zehatz agertzen dute beren narrazioan. Hala nola zaharrena *Frantsesak Madrilen* izenekoan, *Mila zortzi ehun eta zortzigarrenean* aipatzen den, Napoleon Bonaparteren Espainiako kanpainari buruz. Baina frantses iraultzaraino, hots 1789raino doa Arribillagatarren kantutegiko aipurik aspaldikoena, *Berria dut aditu* bertsoaldiaren bitartez. ■

Babeslea: Bilboko Udal

harrapa zank

bilborock-en
www.harrapazank.com

bilboko gazteen euskarazko aisialdi zirkuitua

Bilbao euskara
euzkoaren hizkuntza

topagunea

Ubarrundia eta toponimoak

EUSKALTZAINDIAK ondoko liburu argitaratu du: *Gasteizko Toponimia III, Gasteizko Ubarrundia / Toponimia de Vitoria III, Ubarrundia de Vitoria*. Elena Martinez de Madinak egin du lana eta Arabako Ubarrundia udalerria osatzen duten sei herrietako (Amarita, Erretana, Miñao, Miñagutxia, Gamarra eta Gamarragutxia) toponimoak jaso ditu. XVI. eta XX. mendeen arteko 35.000 leku-izen bildu eta aztertu ditu liburuaren egileak. Martinez de Madinak nabarmendu du bildutako toponimoen %80 euskaraz direla. Ubarrundiako kontuak entzunda, euskara elkarte Topaguneak duela urte eta

erdi hausnarketa prozesua hasi zue-nean egindako jardunaldiak akordatu naiz. Han ezagutu nituen Arabako udalerrir horretatik joandako bi neska. Oker ez banaiz biak ziren gipuzkoarrak, hara bizitzera joandakoak. Biztanleak urri eta sakabanatuta bizi diren eremu hartan, euskara zekiten gutxi batzuek bilerak egiten zituztela esan ziguten. Ez zioten euskara elkarre zirenik, kultur elkarre titulua nahikoa zuten. Zer egiten zuten galdetu eta toponimia hitza aipatu zutela gogoan dut. Hau da, herrikideei garai batean herrian euskara barra-barra egiten zela adierazteko, leku izenak baliatzen zituzten. Larre motzean ari ziren. Hala ere, indar eta gogo berezia nabari zitzaien, hainbat elkarre sendoagoetako baina handiagoa.



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php

TALAIAN

“AHTk gure osasuna murrizten du”

Azken asteotan, Hego Euskal Herrian AHTren kontrako hainbat herri mobilizazio ikusi dugu, Mugituk antolatuta. Imajinazioz eta herri pedagogiaz, azaldu nahi dute zein murrizketa ari diren egiten euskal administrazio publikoak zerbitzu sozialetan eta osasun publikoan, makroproiektu horren 10.000 milioi euroko obrak ordaindu ahal izateko. Odoluste ekonomikoa da, gure diruen, gure eskubide sozialen eta gure osasunaren bizkar eginga, herri mobilizazioetan salatzen ari diren moduan. Horrela adierazten dute euren pankartetako mezuek: “AHTk odola zurruputzen digu”. “Murrizketarik ez. AHTk gure osasuna murrizten du”, “AHT=Murrizketa sozialak”, “AHTren dirua osasungintzara”.

Ez dira mezu batere demagogikoak, gizartearen errealitatean oinarrituak baizik. Nafarroan, AHTk 4.000 milioi euro inguru kostako du. Bertan, osasunaren lehen mailako arretarako partida gutxitu da -%6,7 gutxiago-, baita osasun mentalerako eta osasun publikorako partidak ere -%7,5 eta %14,6 gutxiago, hurrenez hurren-; itxaron zerrendak gero eta luzeagoak dira eta pertsonalaren gastua %2,5 gutxitu da. EAEn AHTren kostua 6.000 milioi euro ingurukoa da. Osakidetza 260 milioi euroko murrizketa egin du zerbitzuetan 2010ean, AHTren Gipuzkoako adarrak 2011ko aurrekontuetan duen kopuru bera (275 milioi euro inguru). Osasun-zerbitzuak murriztu dira eta larunbatetan 46 osasun zentro itxita egongo dira.

Hala ere, larriena da AHT, Euskal Herrian, Estatuaren apustu eta arrazoi bat dela. Herri mobilizazioak izanda ere, abian jarriko da, aurrez eztabaidarik izan gabe. Baldin eta herriarren gehiengoak proiektu antisoziala onartzen ez badu eta arabiar herrialdeetan bezala, zutik jartzen ez bada.

Juan Mari Arregi

BAHEA

Rober Gutierrez Ziurtagiriaren Elkartearen zuzendariak
www.baisarean.org-en esanak:
“Elementu positibo ugari ikusten dizkiot *Ama Hizkuntza Gasteiz* blo-garen ekimenari, esate baterako: gure behar linguistikoak asetzen laguntzeari begira, euskarazko zerbitzua ematen dutenak identifikatu nahi izatea; proiektua bezero eta erabiltzaileengandik sortzea, ekimena gizarteratzea eta atxikimenduak jasotzea, hirian ekinbide desberdina bideratu nahi izatea...”

Baina joan gaitezen harago. Gasteizen, beste hainbat lekutan bezalaxe, euskararen sustapenari begirako egitasmoak bideratzen ari dira ekimen publikotik (Gasteizko Udala eta bere laguntzak), zein pribatutik (Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkarte, Geu Elkarte, Ama Hizkuntza Gasteiz), behar bezala koordinatu gabe eta era nahasgarrian. Zeintzuk izan daitezke hurrengo urratsak?”

Paula Kasaresek gipuzkoa.euskara.net-en esanak: “Michael E. Kraussek, *The world's languages in crisis* (1992) artikulua ezagunean hizkuntza baten egoera aztertzeke mintzaira hori ikasten duten haurren ehunekoa hartu zuen oinarri eta, horren arabera, egungo joera zuzendu ezean, zenbait hamarkadatan munduko hizkuntzen %90 desagertuko zirela iragarri zuen. Antzekoa egin zuen Stephen Wurmek *Atlas of the world's languages in danger of disappearing* (1996, 2001) ikerlanean ezarri zuenean gizatalde batek bere hizkuntza galtzeko arriskua duela baldin eta haurren %30ek gutxienez ikasten ez badu. Horregatik, ordezkatzeko edo galtzeko arriskuan dauden hizkuntzak indarberritzeko proposamenak egiten direnean, belaunez belauneko transmisioa bermatu eta indartzea da helburu nagusia”.

Nuklearra? Eztabaida berriz etxean

FUKUSHIMA-KO zentral nuklearren leherketen ondorioak oso larriak izango dira etorkizunari begira, tan- kera horretako istripuetako ondo- rioek erakutsi izan duten moduan. Larritasuna mailakatzean, zentral honetako lehen erreaktoreko istri- puari 4ko puntuazioa eman diote (7ko eskalan), baina denak adieraz- ten du denborarekin laster irabaziko duela 5. puntua: Harrisburgekoak (AEB) 5. puntua jaso zuen 1979ko istripuan eta adituek dagoeneko argi dute hau larriagoa dela.

Halakoetan ohikoa den bezala, balorazio eta datuen nahasmena da nagusi, baina 200.000 lagunetik gorako populazioa lekuz aldatzeak berak bakarrik asko adierazten du. Antza denez, lan dena nukleoaren fusioa saihestera bideratzen ari da, hori lortu ezean Chernobileko istri- puaren –inoizko larriena– ezauga- rriak errepikatuko bailirateke. Hori erdiesteko dagoeneko ezaguna da erreaktorean dagoen tenperatura jaitsi egin behar dela eta horretara- ko berau hoztu egin behar dela. Zeregin horretan itsasoko ura kopuru handitan erabili da eta, beraz, itsasoak kutsadura erradiak- tibo handia jaso du.

Horrez gain, erreaktorea jaso eta babesten duen eraikineko presioa jaisteko, lurrin isurketak egin dira airera eta hor ere erradiaktibitate handiak egin du ihes. Egunak eta asteak pasatu ahala hondamendia- ren errealitatea apurka joango da azaleratzen. Larriena, ordea, minbi- ziek eragindako milaka eritasun eta heriotzena, urteen iraganarekin bakarrik ezagutuko dugu.

KRISI ENERGETIKOAK berotuta nuklear zaleak berriz armairutik ateratzen ari diren uanean heldu da Japoniako hondamendia eta ikus- gai dago nola eragingo dion ener-



gia molde honen garapenari. Fran- tzian, adibidez, Daniel Cohn Bendit eurodiputatu berdeak erreferendu- ma eskatu du eta ez dira gutxi berarekin bat egiten ari direnak: “Herritarrak dira arriskua onartu ala ez erabaki behar dutenak” (Lau- rent Joffrin, *NouvelObs*-eko edito- rialean).

Euskal Herriari dagokionez, bol- bora bezala zabaldu da Fukushima- ko zentrala Garoñakoa (1970) beza- lakoa dela –“haren bikia” aipatu da–, baina Espainiako agintariek laster azpimarratu dute Espainian ez dela Japoniako lurrikaren arris- kurik eta zentral guztien segurtasu- na ondo bermatua dagoela. Kontua da aurten itxekoa zela Garoñakoa eta itxiera 2013ra arte atzeratu zuela Espainiako Gobernuak, eta petrolioaren krisia baliatuz, 2013tik harago biziraunaraztea ere aurrei- kuspenetan dagoela.

Egia esan, hori da aukerarik egiazkoena, PPK –Japoniako istri- puaren aurretik bederen– esana due- lako Gobernura iritsiz gero, Garoña- koaren bizitza luzatuko zuela. Eta, ezagun denez, Raxoi jaunak eskura ditu Moncloako giltzak. Berdin da munduan istripua izan duen hau eta Garoñakoa diren zaharreneta- koak, berdin 40 urtetik gorako bizi- tzatik harago ez eramatea aholka- tzen bada, berdin dira aurreko

itxiera agindu guztiak. Kontua da ea zerk eragingo duen gehiago iritzi publikoan, asteotako petrolio garestia baliatuz *lobby* nuklearra egiten ari den kanpainak edo etxe- ko telebistan edo ordenagailuan ia uneoro jarraitu ditzakegun Japo- niako berriek.

Fukushimatik 250 kilometrora dagoen Tokio-ko biztanleen izuaz ari gara entzuten han-hemenka, baita han bizi diren euskaldunen ahotik ere. Garoñako zentrala Gasteiztik 40 kilometrora dago, Bilbotik 54ra. Espainian 10 zentral nuklear daude, Frantzian 23 (eta 59 erreaktore). Japoniakoak eztabaidarako aukera ona zabaltzen du, baina nuklearza- leentzat Harrisburg, Chernobil edo Fukushima gidoiaren barruko kal- teak dira, ezinbestean onartu beha- rrekoak. Gobernu eta botere ekono- mikoek buruan zer duten argi dago, herritarrei dagokigu zoritxarreko olatua baliatu eta presio egitea: instituzioetan, kalean, informazio- an... Informazioaren eremuan adi- bidez, nuklearzaleek behin eta berriz zabaldutako gezur handi horietako bat argitu zidan iragan otsailean Greenpeaceko webgu- neak (Espainiako Sare Elektrikoa- ren datuekin): Espainiak ez du Fran- tziaren elektrizitate nuklearra inportatzen, Frantzia da Espainiatik elektrizitatea inportatzen duena.

PELLO ZUBIRIA

Jacques Poirier eta heparinak: botiken kontrol eza auzitan

Ez da jakin zer erabaki duen Parisko Prud'Hommes auzitegiak –Espainian lan magistratura litzateke– Jacques Poirier albaitari eta ikertzaileak Sanofi-Aventis farmazeutikari sartutako salaketarekin. Urtarrilean izan zen auzia. Kanporaketaren azpitik osagai biologikoz egindako botiken segurtasuna edo segurtasun eza ageri da.

EZ DIRA ALARMISMOTIK BIZI BAINA herritarrak erne jarri nahi dituzte: frantsesez *lanceur d'alerte* deitzen diete, euskara guk baino trebeago manciatzen dutenek esango digute alertagile, alertalari, ernerazle edo nola deitu behar diegun.

Lanceur d'alerte ospetsu bat Gilles-Eric Seralini da, frantziarrak ohartarazi dituen genetrikoki aldatutako landareen arriskuez. Iazko maiatzean aipatu genuen NET HURBILen eta berrikitan zabaldu da Frantzia transgenikoak saltzen dituzten enpresei auzia irabazi diela, hauek ito nahi baitzuten zientzialaria kontakaitutzat utziz komunikabideetan.

Urtarrilean beste erne jarrarazle bat pasatu zen auzitegietatik. Jacques Poirierrek Sanofi-Aventis konpainia salatua zuen 2003an kanporatu zuelako, eta Parisko Boulogne Billancourteko *proud'hommes* epaileek ikusi behar zuten auzia. Epairik ez dugu jakin oraindaino.

Poirier babesteko mobilizatu dira medikuntza eta farmazien industrian kontrol demokratikoa eta gardena sustatzen duten taldeak, hala nola Sciences Citoyennes fundazioa, Réseau Environnement Santé (Ingurumena Osasuna Sarea) eta *Pharmacritique* bloga sustatzen duen Elena Pasca. Azken honek bildu ditu afezaz publikatu diren agiri funtsezkoak, zeinetatik irakurlea berehala

ohartzen baita enplegu gatazka arrunt batetik askoz haratago doala.

Lovenox eta Clexane antikoagulantek zer diren esplikatutako behar da ezer ulertzekotan. Heparina mota bat dira, enoxaparinak, hiltegiatara eramandako zerrien hesteetatik eskuratzen direnak: zerri akabatu baten hesteek Lovenox edo Clexane dosi baterako adina heparina ematen dute. Gauza da munduan urtero kontsumitzen diren 450 milioi dosiak eskuratzeko adina urde ez dagoela.

1996an Poirier doktorea orduan Aventis Pharma zen konpainian lehengaien segurtasun biologikoaren arduraduna zen. Gaur ahaztua dirudien behi zoroen krisia beroenean zegoen eta Poirierrek ziur egon nahi zuen bere enpresak saltzen zuen heparina soilik zerrien hesteekin eginga zegoela, ez zeukala behi edo zekorren hestetik; gaur egun oraindik behikien barrunbeek kontrol zorrotzak dituzte, Creutzfeldt-Jakob gaixotasun neurologiko beldurgarria sortzen omen duen prioia elikagaie-tara iritsi ez dadin.

Kezka are handiagoa zen jakinik gero eta gehiago Txinako lehengaiak usatzen zela Lovenox et Clexane egiteko. Albiste itsusiak zabaldua zeuden Txinako heparina ekoizteko zeuden kontrolez, debekatutako behikien aztarnak agertzen ziren

Argazki txikia *Wall Street Journal*ek plazaratu zuen: Txinako hiltegi batean langilea ari da ustez zerrienak diren heste eta barrunbeak manipulatzeko, gai horiekin egiten baitira mundu aberatsean tronbosiak saihesteko usatzen diren heparinetako batzuk, enoxaparinak. Irudi handiak biltzen du Pariseko *Liberation* egunkariak urtarrilean Jacques Poirierren kasuaz plazaratu zuen kronika, bere argazki eta guzti. Marexal eta immunologoak den Poirierrek kontrol sistema zorrotza ezarri nahi zuen enoxaparinak egiteko erabiltzen diren zerri heste eta biriketan, ziur ekiditeko barrunbe horien kutsaduraren ondorioz gaixoren batek gero entzefalopatia espongiformea edo Creutzfeldt-Jakob eritasun beldurgarria harrapatzea. Enpresak, aldiz, nahiago zuen Txinako hornitzaileak ez hainbeste estutzea eta hauek bidalitako gaiei ondoren bestelako test bat egitea, Poirierrena bezain fidagarria ez dena.

zerrien hesteen artean, higie-neurriak sarri harrigarriki txarrak ziren, eta beste.

Poirierrek INRA erakundeko ikerlariekin sortu zuen test bat, IDR (ImmunoDiffusion Radiale, frantsesez) lehengaiak soilik zerriak zirela bermatzeko. Baina segurtasun arduradun honen harri-durarako, Aventis Pharma hasi zen luzapen-tan, urtea baino gehiago testa mar-tzan jartzeko, beste urte eta erdi Espainiako usinan ezartzeko...

Laster ulertuko zuen zergatia: enpresa hasi zitzaizen iragartzen bezeroei lortu zuela bestelako sistema on bat, segurtatzeko enoxaparin horiek egiteko hesteetan egon zitekeen edozein prioie desegina zela. Ezberdintasuna laburbilduz: Poirierrek botikak sortzeko zerrien hesteak besterik ez usatzea nahi zuen, prioirik sartu ez zedin inondik, eta enpresa lehengai kutsatuagoak onartzeko prest zegoen, kutsadura elimi-natzeko kapable zela agudiatuz.


Erosi ezinak babestu

2003an kaleratu egin zuten Jacques Poirot Aventis Pharmatik. Lan gatazka batengatik izan zela defenditu du beti enpresak, eta mezua ondo pasaraztea lortu du komunikabide askotan bezala gaiaz interesatu diren politikarien artean.

Sciences Citoyennes, Réseau

SANTÉ Jacques Poirier, licencié par Sanofi-Aventis, avait pointé le risque de s'approvisionner en héparine en provenance de Chine.

À la veille de son audience, ce matin, devant les prud'hommes de Boulogne-Billancourt, Jacques Poirier se dit «*serein bien que meurtri*», huit ans après son licenciement par Sanofi-Aventis. Mais quand il égrène son «*calvaire*» au sein du groupe pharmaceutique français, sa voix tremble. S'il entend être «*dédommagé*»



Environnement Santé eta beste batzuen ustez, ordea, gizartea arriskuez ohartarazi duen *lanceur d'alerte* baten kontrako mendekua da.

Urte gutxi behar izan dira Jacques Poirierrek arrazoi zuela nabarmen geratzeko. Ez da gertatu prioiagatik, orain artean. Urdeen hesteei behien heste, birika eta bestelako barrunbeak nahasteak, prioia dela eta, Creutzfeldt-Jakob eritasun kasuak agertuko diren beldur dira heparinen kontrol ahulaz kexu direnak, baina eritasun horretan prioiz kutsa eta gaitza azaldu artean denbora asko pasa liteke.

Aldiz, arazoa sortu du zerrien hesteak faltsutzeko erabili den estalkiak. Urde, behi, ardi eta ahuntzen barrunbeak nahastu eta homogenei-

zatzeko, Txinako laborategi askotan kondroitina sulfatatua usatu dute, eta hori izan da 2007-2008an Amerikako Estatu Batuetan 80 pertsona hil dituen eta 800 gehiagori erreazio alergikoak eragin dizkiena.

Eskandalo handi samarra sortu zuen AEBetan honek guztiak, Txinaren heparina sortzen duten hiltegi eta laborategietako lan baldintzez eta zikinkeriez kronika gordinak eta zenbait argazki nazka eragile plazaratu zituzten egunkariek, hala nola *Wall Street Journal*ek.

Ondorio onik ekarri zuten salaketa publikoak... iparramerikarrentzako. Poirierren defentsan mintzatu den Didier Leveieux-ek espliatu duenez, "Aventis Pharmak Britainian duen usinak fabrikazio lerro berezia

dauka Estatu Batuetara esportatzen duen enoxaparina ekoizteko, eta betetzen du AEBetako administrazioak jarritako araua, alegia fabrikaziorako usatutako heste guztiek pasa behar dutela... IDR kontrola". Hain zuzen Poirierrek eta INRAk sortua.

Jacques Poirierrek arrazoi zuen, beraz. Baina kale gorrian dago. Berak 2008an Parisko prokuradorea-aren aurrean aurkeztutako salaketak saskira jaurti dituzte. Bitartean, gaur Frantziaren egiten diren heparinak bi motatakoak dira, bata amerikarrentzako, hobeto kontrolatua eta zerrikiz egina, eta frantsesentzako bestea, kontrol gutxiagokoa. Espainol izatera kondenatutakook kontsumitu beharreko heparina bietatik zein den asmatzea ez dirudi zaila.

Gaur Sanofi Aventis den konpainiak zigorrak errukigabeena erabiliz zentzatu nahi ditu produkzio eta salmenta kateetan informazio berezia dutenak. Orduan, nork babestuko ditu osasun publikoaren arriskuak salatzen dituztenak? Sciences Citoyennes fundazioak eta beste batzuek *lanceur d'alerte* direlakoak defenditzen dituzte, horretan dihardutenentzako estatus juridiko berezia aldarrikatzen dute, Estatuak bermatu behar dituelako adierazpen askatasuna eta kontsumitzaileen babesa.

Beste frontea da herritarren ize-
nean botikak kontrolatzen dituzten adituek enpresekin dauzkaten interesak salatzea. Heparinen kasuan, *Pharmacritique*k plazaratu du Frantziako botikaren kontrola daraman erakundeko presidente Phillippe Lechatek ezkutatu egin duela aurretik Lovenoxi buruzko ikerketak egin —eta kobratu— zituela. Bitan, antza. ■



ZINKUNEGI OPTIKA

Garantia.

Egunez egun zure konfiantza geureganatzen dugu,
produktu berriak eta zerbitzu berriak etengabe bilatuz.

Hernani, 23 · 20004 Donostia · T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com · www.zinkunegioptika.com



Garbine Ubeda Goikoetxea

Médart doktorearen bila

Sarritan, psikoterapeutarenean irudikatzen dut nire burua. Larruzko diban marroi batean etzanda ni, eta hura zertxobait atzerago, sofan jarrita, nire zintzurretik aterako diren disonantziak batzeko zain. *Les Psy* komikian bezala. Korapiloren bat askatzeko premian, Médart doktorearen kabinetea heltzen den pertsonaia horietariko bat banintz bezala.

Ohiko txikieria mehatxagarririk horiek bultzatzen naute egoera horretan kokatzera, ia beti arrotz eta lekuz kanpo sentitu behar horrek, nire naturalean komunikatzeko inguru faltak... Bai... Euskalduna naiz, euskaldun axolatu eta minontzia, eta portaera arazoak ditut. Ez dut jendartean asmatzen. Jendarteak ez du nirekin asmatzen. Goi tentsioko postea dirudit.

“Jar zaitez luze, eta kontaiezadazu...” entzun nahi nioke atarikoan hizkuntza aldrebeskerietan doktoratutako balizko terapeutari. Bizi martxa aztoratu didan gertakariren bat kontatuko nioke nik, eta hark, segidan, ondorioztatu ditudan sentipen ustelak samurtzeko gakoa emango lidake. Gidoi petraleko istorioak izango lirateke denak, zozoak, amaiera zuzentzea eskatzen dutenak. Hemen bat.

Orain dela gutxi mezutxo bat heldu zitzaidan sakelako telefonora. Dagoeneko puntu ugari nuela gogorarazten zidan nire hornitzaile Movistar-ek, nahi izan ezkerreko aparatutxo berria jaso nezakeela doan, eta hurbiltzeko haien saltokiren batera.

“Zer demontre”, pentsatu nuen neure artean, tekletako zenbaki higatuei begira. Nire tramankulu zaharkituaren orde, erpuru bultzadatxo batez zabaltzen diren mini tresna dotore horietako bat imajinatu nuen eskuan. Klap, eta pantaila argitu. Klap, eta itxi eta blokatu. Nonahi gordetzen den arkakuso telematikoa, funtzionala, moderno... “Noan albait arinen”.

Ettxera bidean, erremediorik gabe harrapatzen nauen likan erori nintzen haren aitzakian: Donostiako Garberan. Merkataritza gunea zeharkatzen



DANI BLANCO

duen korridorea zuzen hartu eta erdi parean aurkitu nuen Movistar denda. Segapotoa agerian, saltzaileetako bati hurbildu nintzaion:

—Kaixo, SMS bat jaso dut...

—*Para el carro* —bota zidan hark harrigarriki ozen, esaldia bukatzen uzteko ere presatuta— *que soy de León*.

Entzundakoa entzun orduko eskuinerantz zuzendu nuen bista, bezero batekin solasean ari zen bigarren saltzailearengana.

—*Y ella es de Colombia* —nire parekoak berriz ere, tentazioak ekiditeko tonu are txundigarriagoan.

Fale. Segundo-milarena ere eternala izan baitaiteke, surrealismo ukituz zipriztindutako film oso bat pasatu zitzaidan burutik. Londresko Picadilly inguruan imajinatu nuen neska leondarra, British Telecom-eko denda batean lanean. Jatorria bakean lagata, trakets baina barra-barra ari zitzaion hizketan beste neska bati, ingelesez jakina, nahiz eta bezero horrek, apropos erortzen utzitako berba solteengatik, leondarren hizkuntzan ondo asko zekiela adierazi. Ez nion ezer esan.

Euskaraz jarraitzea deliberatu nuen gero, poliki baina aurrera egitea, esan behar niona ulertzea horren zaila ez delakoan. Alabaina, tenteegi zegoen eta ni uzkuertzen hasi nintzen. Ez nintzen saiatu ere egin.

Besterik ere otu zitzaidan tximistak iraun zuen artean: neroni ere tentetzea, bezeroari eskaini beharreko arretaz ikastaro trinkoa gomendatzea... Praktikara eramango ez nuen matraka ugari. Horren orde, lepoko gogortuak laxatu, sakon arnastu eta politikoki zuzen ari denaren eitean, gazteleraz mintzatu nintzaion.

Eta, diot, interakzioa ez eteteko ahalegina egin zuena neu izan banintzen, eta egoera aldrebesari aurre egiteko pausua, amore eman ez, nik eman banuen, zergatik naiz neroni sentsazio txar hori barneratu duena, potrozorriaren pare sentitzen dena?

Horra hor on terapeutak argitu beharko lida-keena. ■

Merkataritza gunea zeharkatzen
duen korridorea zuzen hartu eta erdi
parean aurkitu nuen Movistar denda.

Segapotoa agerian, saltzaileetako
bati hurbildu nintzaion:


—Kaixo, SMS bat jaso dut...

—*Para el carro*

—bota zidan hark harrigarriki ozen,
esaldia bukatzen uzteko ere presatuta—
que soy de León

ASTE HONETAKO

zozketa



Ondarre Landetxea

Asteburu pasa
bi lagunentzat

Ondarre baserria
Segura GIPUZKOA

www.nekatur.net/ondarre

1



Zientziaren kutxagunea

4 harpidedunentzat
bina sarrera

Mikeletegi, 43
Donostia GIPUZKOA

www.miramón.org

2

Ekain berri



Ekain berri

3 harpidedunentzat
bina sarrera

Portale kalea, 9
Zestoa GIPUZKOA

www.ekainberri.com

3



Esait

5 kamiseta
opari

Oiartzun GIPUZKOA

www.esait.org

4



Illimani

2 liburu opari

www.argia.com/denda

5

AZKEN IRABAZLEAK (2267. Argia)

ATXASPI HOTELA

- Aintzane Linaza Etxeberria (Gasteiz)

TARPOON URPEKARITZA

- Unai Bergaretxe Leibar (Arrasate)
- Aiora Azagirre Garitagoitia (Bilbo)

MOROAK GARA BEHELAINO ARTEAN

- Aratz Erretegia (Donostia)
- Amara Berri AEK Euskaltegia (Donostia)

INGURU ABENTURA

- Xanti Saizar Arostegi (Tolosa)
- Fagor Industrial liburutegia (Oñati)
- Irati Lujua Etxenike (Etxalar)

MUNDUKO IPUINAK

- Auro Ansorregi Altzibar (Mutriku)
- Victoria Txurruka Azpiazu (Ondarroa)

* Bisitaldiatarako epea: Bi hilabete

PARTE HARTZEKO

Astelehenetik ostiralera 08:00-15:30

Tel: 943 36 72 85 • gunea@argia.com • www.argia.com/gunea

maite ditugu
igandeak

eta hemendik aurrera

are gehiago



Euskal Herriko igandekariaren

aro berria

igandeetan **GARA** -rekin